

TOKIKOM

2013ko urtarrila | 122. zenbakia

aike!r!

txorierritarria



Esentzia txorierritarra



TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetzuko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 558 172

Faxa: 944 558 172



Zamudioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 520 826

Faxa: 944 521 349



"Txorierrri" B.H.I. (Derio)

Tel.: 944 543 258

Faxa: 944 543 262



"Gorondagane"

Herri Ikastetxea (Sondika)

Tel.: 944 531 020

Faxa: 944 531 020



Derioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 541 246

Faxa: 944 541 246



Lezamako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 55 119

Faxa: 944 555 163



MATRIKULA
Urtarrilaren 28tik Otsailaren 8ra



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Jon Goikouria Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Susana Rodríguez, Imanol Álvarez, Amagoia Guezuraga, Sabin Arana, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobiega, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



12 Riki López



16 Jesús Endemaño, 100 urte



30 Zamudioko boxeo taldea

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Aireratuko gara?**
- 12 Gurean izan da... Riki López, umorista**
- 14 Gaztea eta... Iker Jauregi, zaldikoa**
- 16 Jesús Endemaño, 100 urteko loiuztarra**
- 18 Aritz Bizkarra, garagardo-egilea**
- 22 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 24 Truke azoka, Lezaman**
- 26 Txorierriartua... Anlly Rodríguez**
- 28 Txorierri ezagutu... Zamudio-Zugasti**
- 30 Elkarreak... Zamudioko boxeo taldea**
- 32 Berbalagunen txokoa**
- 34 Teknologia**
- 35 Aikorrizketan... Uagadugu: Uagadogu...**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ESTILISTA
EVA ARDINES

AmAr

Asteartea - Ostirala: 9etatik-10etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Urte Plaza, 1 - Behas 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19; (Aurreko tsanda)

Patxi KOOP.
BANATZAILE OFIZIALA

Mahon

Sakeleko telefonoa: 667 67 73 00
NEINVER pol. - Etxezarre kalera, 4
48170 ZAMUDIO - Bizkaia

✉ faxa: 94 452 25 67
patxiskoop@patxi.coop



SUSANA RODRIGUEZ
(Abokatua)

Utzi negarrez egoteari. Belaunaldi batez eta beraren arazo funsgabeez 1983. urtean Munich hirian jaiotako Meredith Haaf idazle alemanaren azken lanaren izenburua da. Oso gustura irakurri dut. Ezin ukatu atsegin izan dudala *Belaunaldi galdua* edo *Ni-ni-ni belaunaldi* deritzonaren baitan sortutako pertsona batek bere errua aitortu eta norberaren jokabideari dagokion erantzukizunaz jabetu izana, kontzientziaz eta senez,

Utzi negarrez egoteari

inolako porrotik edo errukirik erakusteke. Meredith Haafek idazteko modu bizkorra, objektiboa eta pragmatikoa darabil, eta aldi berean, isekaria eta umorez zipriztindua, laurogeiko hamarkadan jaio zirenen portaeraz eztabaidatzeko. Idazlearen iritziz, belaunaldi horretako kideok etxe lar babestuetan jaio ziren, gurasoak beldur zirelako beraiek pairatutakoak seme-alabek ere sufritu zitzaizten. Eta berriro diot, etxeko giro babestuegian hazi ziren.

Horren eraginez, gaur egungo gizarte, lan eta ekonomia testuinguru ilunean, gazte askok nahiago dute gogo barik eta sortasun betean bizi, asmoz eta ahaleginez jokatu baino, halako egoera batean aldatuko delako esperantzaz. Benetan, egoeraren konponbidea ez da batere erraza eta, zer esanik ez, belaunaldi horretako gazte guztiak ez daude *galdua* eta ez dira *ni-ni-niak*. Batzuetan, ikasketak luzatu beste erremediorik ez dago; edo

eskas ordaindutako beka nahiz lan-praktikei heldu; edo zabor-kontratu eta amaierarik gabeko lansaioei eutsi; edo gurasoen etxean bizitzen segitu, alokairuan bizitzeko eskaintza duinik ez dagoelako. Horiek horrela, pertsonak adorea galdu eta etsita daude badaezpadako etorkizunaren aurrean. Badirudi atzera doazela, aurrera barik. Egoerak eta beldurak gerazten dituzte.

Hala ere, badago zer egin. Horixe bera adierazi nahi du idazle gazteak. Gazteok haserretu egin behar dugu, hausnartu eta zalantzan jarri ondo ez dabilen guztia. Erresumindu egin behar dugu gizartearen bidegabekeriaren aurrean, boterearen gehiegikerien aurrean eta sasidekrazien aurrean. Erantzukizunez jokatu, nork bere etorkizunaren gaineko agintea hartu behar du eta negarrez egoteari utzi behar diogu. Izan ere, inork ez digu ezer oparituko.

Forma eta funtsa

Dena dator bueltan. Perspektibarik eza izango da, baina munduak hartu duen abiadurari so eginez gero, aroak gero eta laburragoak dirudite, belaunaldi bakoitzak Historiaren zatitxo bat idatzi nahiko balu bezala.

Errenazimenduari Grezia Handiaren garaietara itzultzea kostatu zitzaiona kontuan hartuta, hamarkada bakar batean ekarri dugu guk bueltan azken mende erdia. Baina gurea berreskurapen estetiko hutsa da. Praken zabaltasunarekin eta betaurrekoen tamainarekin gelditu gara, eta hippyen kanpaien eta Lennonen betaurrekoen atzean zegoena nonbait

galdu da. Biak salgai daude Zaran. Intsignia dago modan; ez leola.

Gaur egungo gazteok ez dugu gizartearen sinesten, antza. Eta asko harrituko dira... Oasiak oasi, indibidualtasunaren erresuman hazi gara. Orain dela gutxi, desio bana botatzeko eskatu nion ikasle talde bati: edozein kolektibotasun motari dagokion bakar bat ere ez. Bestelako zorientasun eredu bat behar dugu; estruktura politiko berriak, zenbat eta gertukoagoak, hobe. Eta jakintza sozio-ekonomikoa duten pertsonak, estruktura ez baitu bakarrik funtzionatzen. Hausnarketarako eta kritikarako gaitasuna



IMANOL ALVAREZ
(Filosofia irakaslea)

dutenak, noski. Eskatzea libre omen da. Espero dezagun garai txarrek zerbaitearako balio izatea.



**Garmendia
ardoak**

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Txorierrri motorrak hasi da berotzen, Korrika hartzeko



Korrika euskararen aldeko lasterketa erraldoiak 18. aldiz zeharkatuko ditu aurtur Euskal Herriko herriak eta kaleak. Hala, martxoaren 14an Andoainetik atera eta martxoaren 24an Lapurdia ailegatuko da. Aurtengo edizioarako "Eman euskara elkarrri" aukeratu da leloztzat, "euskara euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar due-

lako. Elkarrri hitz egiteko hizkuntza. Elkarri entzuteko eta ulertzeko".

Korrika Kulturalaren haritik ekitaldi-sorta zabala antolatuko da eta, dagoe-neko, batzordeak Txorierrin ere hasi dira lanean. Aurreko edizioetan bezala, herri bakoitzean batzorde bat osatu da eta horiek badabilta proposamenak eta iradokizunak aztertzen, Korrika inguruan

hainbat ekitaldi egiteko. Batzordeak herri-ritar guztiei daude zabalik eta bertan nahi duen guztiak har dezake parte. Herrietan kartelak ipiniko dira batzordeak noiz eta non bilduko diren iragartzeko, baina baten batek zalantzarik badu, Txepetxa AEK euskaltegira jo dezake (94 454 39 67) eta han azalduko diote bere herriko batzordea noiz eta non bilduko den. Esan diguten bezala, ideia guztiak izango dira ongietorriak eta eskertzekoak.

Zehetasunak

Korrika otsailaren 22an aurkeztuko da Txorierrin. Ekitaldia arratsaldeko 7etan egingo da Zamudiotarren eta, besteak beste, aurtengo Korrikaren zehetasunak, Txorierritik noiz pasatuko den eta gure herrietan izango diren ekintzak ezagutaraziko dizkigute bertan. Bideo-emanaldia ere egongo da. Aurre-rapen moduan, esan dezakegu Tximitx Derioko euskara elkarteak eta herriko korrika-batzordeak Lingua Nabajorum antzezlan antolatu dutela martxoaren 2rako. Antzezlan Gu-rea Aretoan izango da arratsaldeko 6etan.

Bestalde, Korrika 18k "Lekukoaren bila" ginkana antolatu du. Egitasmoa euskara ikasleei zein gainontzeko herri-tarrei dago zuzenduta eta horiek proba ezberdinei egin beharko diete aurre: punteria, koordinazioa, oreka... Herrialdeko finala martxoaren 2an izango da; eta final nagusia, Korrikaren amaierako jaian, hau da, martxoaren 24an, Baionan.

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubieta
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-PLANTIAK - ORTUOINTZIA-ESTETIKA
DENTURAK - DENTURADURAK

Dr. Aranda kalea, 11 - 1. et. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Uribe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANA JATETXEA



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAITARITZA
Nerea Pedrosa Gola, 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Arkitektura oztopoak kentzeko lanak, Lezamako eskolan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila badabil herriko ikastetxean hainbat lan egiten, han dauden arkitektura oztopoak kendu eta erabilerraztasuna hobetzeko. Lanak hango Udaren laguntzarekin egiten dabil. Besteak beste, ikastetxerako kanpoko sarbidea berri da, eta horrek dituen ate bietariko bat handiagoa egin da, gurgil-aulkia erabiltzen duten lagunak ikastetxera oztopo barik sar daitezten. Era berean, elbarrituentzako komunak atondu dira zentroko solairu bietan, eta, azaldu duten bezala, laster solairu biak lotzen dituen igogailu bat ipiniko da. Bestalde, ikasleen segurtasuna helburu duten lanak ere egin dira ikastetxean. Hala, ibilgailuak jolastokira sartzen diren atearen beheko aldean metalezko xafra bat ipini da, umeak handik narrasean sartzea saihesteko. Jolastokian euri-urak batzeko sistema hobetu da eta erretan bat atondu da jolastokia eta areto-futbol zelaia batzen dituen eskaileren gainean. Horrezaz gainera, eraikineko kanpoko arkupearen estalkia aldatu da, itoginak zeudelako, eta babes-hesi bat ipini da eraikineko barruko eskaileretan, umeak eskaileren zulo-tik ez jausteko. Azkenik, aipatu beharra dago segurtasun-beira ijeztuak edo laminak jarriko direla eraikinerako sarbidean dagoen bigarren atean. Beira ijeztuak dagoeneko ipini dira lehenengo atean.



Eskolaren urteurrenaren aurkezpena, Lezaman

a: Lezama ereiten, fotografia-artxiboa

Aurten 25 urte beteko dira Lezamako gaur egungo eskola eraiki zela. Urteurrenaren haritik Lezama ereiten taldea sortu dute irakasleek, gaur egungo ikasleen gurasoek eta ikasle ohien gurasoek, ikasle ohiek eta udal ordezkariak. Antzinako argazkiak eta bideoak batzen dabilta eta dokumentala prestatzeko asmoa dute.

Taldeak eskolaren urteurrena aurkeztuko du otsailaren 8an, eta datozen hila-beteotan egingo dituzten ekintzen berri ere emango dute bertan. Aurkezpena arratsaldeko 6etan izango da Lezamako Kultur aretoan. Beste ekintza batzuen artean, argazki-muntaia emango dute ekitaldian eta kamisetak jarriko dituzte salgai. Ostean, kopaua eskainiko da Adin-tsuen etxean.



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

“Jaungoikoa”, bizkaitar entzutetsuen galerian

t: Amagoia Guezuraga / a: Euskal Museoa

Akerrak, zorritxoak eta perretxiko ustelak aipatzen ditugunean txorierritarrok badakigu nortaz hitz egiten gabiltzan. Gure herrietan ezizenak izatea eta horiek erabiltzea ohikoa izan da. Baina badaude gure herrien artean beren beregiko izendegia egiteko ezizen ugari dutenak. Larrabetzuarak izan ziran: Zentaiaz, Kuarenta, Churchill, Musolini, Gorringo, Chinchillas, Herri, Euskadi, Jalokreo, Kojonetea, Bastoa bata, Patente, Abarka, Lakarra, Napoleón, Jesukristo, Jainko txikerra eta Jaungoikoa adibidez (ezizenen berriemailea: Belarreneko Matxin). Oraingo honetan Jaungoikoa dugu protagonista.

Bilboko Euskal museoak otsailaren 24ra arte ikusgai egongo den “Bizkaitar entzutetsuen galeria: pertsonaia herrikoiak” erakusketa antolatu du. Bertan, XIX. mendeko azken urteetan eta XX. mendearen lehen erdialdean nabarmendu ziren pertsonaien erretratuak jarri dituzte ikusgai. “Bizkaitar entzutetsuen galeria” 1950. urte inguruan sortutako proiektua da eta, haren sustatzaileek Museo ikonografiko moduko bat egiteko asmoa zutela, olio egindako 239 erretratu batu ziren han. Proiektuaren protagonistak kirolariak, artistak, idazleak, ospetsuak, ongileak, herri-



koiak, negozio-gizonak, kalekumeak... izan ziren eta haien artean Jose Antonio Alayogoikoa Oar, “Jaungoikoa” egon zen.

“Jaungoikoa” Goikoelexaldeko Emeterio eta Zeledonio elizan bataiatu zuten 1844. urteko azaroaren 18an. Francisco Alayogoikoa Urizar eta Maria Josefa Oar Mugarren semea zen. Erakusketan azaltzen den moduan, Jose Antonio Alayogoikoa Larrabetzutik Bilbora joan zenean garraioan aritu zen. Bere ondorengokoak Mudanzas Alayo enpresakoak dira gaur egun. “Jaungoikoa” Pascasia Zuazo Fanorekin ezkondu zen Abandoko San Vicente elizan (1871), eta hamaika seme-alaba izan zuten. Alayogoikoa kaietan hasi zen lanean, merkantiak lerekin eramaten, eta gero idiekin eta zaldiekin. Bidaia-erien garraiorako zerbitzua ere bazuen, eta Bilboko jaietan bera arduratzen zen Gargantua garraiatzeaz idiek tiratutako patin batean jarrita.

Irteera sagardotegi batera

Larrakoetxe jai-batzordeak irteera bat antolatu du Adunako sagardotegi batera. Loitutik goizeko 9etan aterako dira eta hamaiketakoak Irrintzi Billabonako elkartean hartuko dute. Bazkaldu ostean triki-poteoa egingo dute Oriotik eta herrira gaueko 11etan itzuliko dira. Irteerak 65 euro balio du laguneko. Izena ematea otsailaren 1etik 12ra arte egin behar da Zabalotxeko eskola zaharrean, 11:00etatik 13:30era bitartean. Era berean, 609 45 79 98 telefono zenbakira dei daiteke izena emateko.

Abesbatzen emanaldia

Bizkaiko Abesbatzen Astea 40. aldiz antolatu da aurten, Begoñako basilikan. Ekitaldian 48 abesbatzak hartuko dute parte, eta haien artean egongo dira Txorierrikoak ere. Txuma Olagüe Sondikako abesbatzak eta Ipar-alde Derioko abesbatzak emanaldia eskainiko dute otsailaren 5ean, iluntzeko 8etatik aurrera. Zamudioko Kamara Korallak otsailaren 8an emango du kontzertua, hura ere iluntzeko 8etatik aurrera izango da. Sarrera doan izango da.



Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

GOIKO TABERNA Taberna-jatexea *Emiliano*
Menu bereziak atzeratuak • Egunko menua eta karta
Etzero ormenteko platerak • Janartzeak eta edonak
Itxakia atzeratuak • Jantziak zahar
R.º Gernika, 1 • Tfno. y fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

HARATEGIA • URDAITEGIA
VICTOR
ARTISANAL-ELABORAZIOA
Oxela ekoizten dugu: odolosteak, txorizoa, txistorra, solomoak
Plater aurrekoizatu
Golri, 4 - 48150 Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Consulting Sondika s.l.
Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia Allianz
609 475 746
Mihone, 5. beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

KIMA Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Club Hípico Aretxalde
Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak • Apolo zerbitzua
Sato • Txangoak • Animalien heziketa
Telefona: IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

Sondika

Otsailak 15, barikua

- 16:00: Txupinazoa, jaien hasiera.
- 16:30: Jolasak, eskolan.
- 18:00: Kalejira sardinarekin: eskola-tik herrira.
- 18:30: Pailazoak.
- 19:30: Txuma Olagüe abesbatzaren emanaldia (behe-ahotsak).
- 20:30: Pintxoak.
- 23:00: Gansos rosas taldearen kontzertua.
- 01:30: La fuga taldearen kontzertua.
- 03:30: Disko festa, Oihan Vegarekin.

Otsailak 16, zapatua

- 11:00: Umeentzako jolas-parkea.
- 12:00: Xigorki lehiaketa eta kalejira, txistulariekin.
- 16:00: Nagusientzako kafea, Nagusien etxean.
- 17:00: Umeentzako jolasak.
- 18:00: Erromeria, Nagusien etxean.
- 18:30: Umeen mozzorro desfilea.
- 19:30: Sariak banatzea: umeen mozzorroak, xigorki lehiaketa eta erakusleho lehiaketa.
- 19:30: Txokolatada.
- 20:30: Kalejira, Zo-zongo perkusio taldearekin.
- 21:30: Sardinaren hiletak.
- 23:00: Enkore taldearen kontzertua.
- 01:00: Erromeria, Oxabi taldearekin.
- 03:30: Disko festa, Melsax-ekin.

Milaka koloretako begiradak



Txorierritarrok bagaude gogo eta ilusio handiz gure mozzorroei azken ukituak ematen. Izan ere, Inauteriak otsailen ospatuko ditugu, eta horiek kolorez, dibertimenduz eta ironiaz betetako egunak izango dira. Gure herrietan egitarau zabala antolatuta dagoen egunetarako.

makla
arkitektura

Teknologi Parketako Elkartegia, 804 E - 107 B
94 431 79 21 48600 Dena, Bizkaia
653 06 386 estudio@maklaarkitekturen.com
620 060 111 www.maklaarkitekturen.com

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Olea Kalea, 1 • Tel.: 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Arantza Amendarain Lasa
Ginekologoa

Txorierriti etorbidea, 5-4
413 Irujoa
48100 Dena

Teléfono eta fax
94 454 44 58
a.amendarain@euzkadi.net

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezio sabaia eta apalategiak
Sabai erregistragarriak

Aleria Ibaia plaza, 6 - 48160 Dena
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

Isolamendu termiko eta akustikoa

Ale-ahaindegia
M^a Antonia Llodio

Txorierriti etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Loiu

Otsailak 2, zapatua. Larrondoko frontoian.

- 15:00: Herri bazkaria.
- 16:00-20:00: Puzgarriak.
- 17:00: Koadrilen arteko herri kirolak.
- 19:30: Desfilea.
- 21:00: Diskoteka.
- 22:00: Bingoa.
- 23:00: Diskoteka.

Otsailak 8, barikua. Zabaloetxen.

- 18:00: Haurren mozzorro lehiaketa.
- 18:30: Animazioa eta txitxi-burruntzia, frontoian.



Zamudio

Otsailak 9, zapatua

- 11:30: Hiru urtetik gorako umeentzako mozzorro tailerra, liburutegian.
- 18:00: Xigorki lehiaketa eta dastatzea, frontoian.
- 18:30: Sariak banatzea, frontoian.
- 19:00: Erromeria, Ganeko taldearen eskutik. Frontoian.

Derio

Otsailak 8, barikua

- 18:00: Txokolatada, ikastetxean.

Otsailak 9, zapatua

- 17:00: Mozzorro lehiaketa eta animazioa Xaibor-ekin, Sollube kalean.

Lezama

Otsailak 9, zapatua

- 19:00: Artista lehiaketa.
- Mozorro lehiaketa.
- 20:30: Saloi-dantzen emanaldia.
- 21:30: Herri afaria.
- 22:30: Sariak banatzea.
- Diskoteka.

Larrabetzu

Otsailak 8, barikua

- 10:30: Eskolako umeen desfilea, frontoian.
- 17:00: Berbena Kiki, Koko eta Moko pailazoekin, eta txokolatada. Frontoian.
- Hainbat ekitaldi, Andra Mari kalean.

Sariak banatzea

Txorierriko Ipuin Lehiaketa 15. aldiz antolatu zen iaz eta haren sariak otsailaren 1ean banatuko dira Sondikako Kultur Etxean. Ekitaldia arratsaldeko 7etan hasiko da eta bertan Tor magoak hartuko du parte. Lehiaketa Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako egitasmoa da.

Areto-futbol txapelketa

"Sondikako Udala" Areto-futbol Txapelketari otsailaren 3an emango zaio hasiera. Hura 24. aldiz antolatu dute Udalak eta Hegalariak kirol taldeak. Partidak zapatu eta domeka goizetan egingo dira Goronda Beko kiroldegian, eta sarrera doan izango da.

"Mihiluze Txorierrin" txapelketan izena ematea

Aurreko urteetan bezala, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak "Mihiluze Txorierrin" txapelketa jarri du abian. Txapelketa lehen hezkuntzako 5. eta 6. ikasleei dago zuzenduta eta aisialdian eta egunerokotasunean ere euskara erabiltzea du helburu. Izena ematea otsailaren 1etik martxoaren 8ra arte egongo da zabalik eta Txorierriko ludoteketan egin behar da.


LIBRERIA SONDIKA
LIBRUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)


AM
FORMACIÓN Y TRADUCCIÓN

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Errementeri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

Centro Social
Txorierrri

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
María Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Mixino 6, bajo - 48150 - Sondika (gehokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierrri.com

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Izarrak, mara-mara



a: Aner Mentxaka

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Izarren distira! lehiaketaren gala antolatu zuen hirugarren aldiz Sondikako Kultur Etxean, joan den abenduan. Irabazlea Sondikako sei neskek osatutako taldea izan zen, eta Port Aventura-ko bidaia jaso zuten saritzat. Amets Ibarra, Olatz Zarraga, Sarai Sordo, Maite Elordui, Klaudia Ondartza eta Idurre Duarte inongo atrezezorik gabe –aulki bat besterik ez– eta beltzez jantzita agertu ziren eszenatokian. Euren antzezlanean amona batek gerra garaiko istorio bat kontatu zien ilobei eta protagonista euskara izan zen.

Guztira 12 eta 18 urte bitarteko 21 gaztek hartu zuten parte galan, 8 talde-tan banatuta. Publikoak dantzari, kantari eta musikari gazteak ikusteko aukera izan zuen bertan, eta jaialdia Hutsa musika taldeak girotu zuen. Galaren aurreko hila-beteetan gazteek tailerretan hartu zuten parte Derioko Kultur Birikan eta Sondikako Gaztetxean. Era berean, sailkapen castingak egin ziren Derion eta Lezaman.

Castingetan Ugaitz Alegria eta Ylenia Baglietto aktoreen laguntza izan zuten gazteek.

Beste alde batetik, Izarren distira! egitasmoaren haritik, aurtengo kazetaritza tailerra antolatu da lehendabiziko aldiz. Idurre Duarte kategoria horretan ere izan zen irabazlea eta bere saria –8 hazbeteko tableta– galan jaso zuen. Gainera, bere artikulutxoak Aikor! aldizkarian argitaratu genuen abenduan.





Aireratuko gara?

Bizkor agurtu dugu 2012. urtea eta lehenbailehen ongietorria eman diogu 2013. urteari. Urtea bukatzeko astebete falta zela, hedabideek behin eta berriro azpimarratzen zuten urtea bukatzeaz zegoela, eta desiorik onenak opatzen zituzten hurrengo urterako. Iaz ere bizitzaren ziklo berria hasi bazen ere, egia esateko, nik ez nuen batere sumatu... agian turroiek superbotereak eman dizkidate urte berri honetan hegan egin ahal izateko?

Testua eta argazkia:
Jon Goikouria Larrabeiti
www.flickr.com/photos/jongoikoh

Bai Euskarari
urrats biziak

zuzenbiziaren alkartasuna

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ENRESENBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAI) • TELEFONO/TAX: 94 455 64 87

48196 LEZAMA (Bizkai) Gasteizko auzoa, 36

S.A.T. LEGU
BERRAVALIAZIOA ETA BERRAVALIAZIOA

Tel: 94 455 64 17 Tel: 94 455 61 98

URÉJOLA
JATETXEA

Ezkontzak
Enpresa-bazkariak
Menu bereziak

Aretxalde, 5
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 64 83
Faxa: 94 455 50 94
www.urejola.es
info@urejola.es

t: Gaizka Eguzkitza / a: R.L.

Zer da *Buenrollitina*? Zein botiketan saltzen dute?

Nire ikuskizunaren izena da, baita nire kanta batena ere. Hitzak medikamentuaren erabilera-orria izango balira moduan daude idatzita. *Buenrollitina* (energia baikorra, ez kanta) ezin da botiketan erosi, egunero-egunero landu behar da, bizi-tzak ekartzen dizkigun erronkei aurre egiteko.

Nolako egoera dugun kontuan hartuta, giro ona gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da, ezta?

Bai horixe. Ezkortasuna nagusi da, eta egoera txarrak umoreak dakarren freskortasuna eskatzen digu. Arazoei irribarrez egin behar diegu aurre. Batzuek diote bizitza horrelakoa dela, baina konformatzten direlako. Egoera txarra aldatzeko zer-bait egin baino, nahiago dute kakaren partea izan.

Baikortasuna behar-beharrezkoa da antzerkigintzan eta umorean, horietan ere egoera batere ona ez delako...

Baditugu kexatzeko arrazoiak, noski. Ikuskizunen txartelen BEZa % 13 igo da (% 8tik % 21era) eta, hala ere, prezioa jaitsi behar dugu, jendearen erosteko ahalmena ere txikiagoa baita, eta antzerkira joateko erarik ez duelako. Halaber, batzuetan Udalek ez dizkizute zor dizkizuten fakturak ordaintzen. Ondorioz, gure etekin ekonomikoak txikiagoak dira eta etsipena sortzen da. Beste esparruetan gertatzen den moduan, umorista asko gorriak ikusten dabilta. Baina nik uste dut bizi-tzak berak jartzen dizkizula probak, eta horiek gainditzeko bizkortu behar duzula. Zure lanak asebetetzen bazaitu, murrizketak ekonomikoak ez da hain garrantzitsuak eta bere ordezkioa, umiltasuna eta lanzaletasuna dituzu. Arimaren poltsikoak beti izango ditugu behintzat, ea dagoen gobernurik han eskua sartzeraz ausartzen denik!

Kantak eta bakarrizketak egiten dituzu. Zer zara, musikari ala umorista?

Batez ere umoristatzat hartzen dut neure burua. Kantautorea eta aktore komikoa naiz, baina nire saioetan testua musika baino garrantzitsuagoa da, *Buenrollitina* ikuskizunean behintzat. Abestiak bakarrizketan esaten dudanaren bukaera dira, nolabait esanda. Ez dakit "bakarrizketak" hitza bat datorren abestien artean egi-

"Arazoei irribarrez egin behar diegu aurre"

RIKI LÓPEZ | umorista

Buenrollitina Riki Lópezen krisiari aurre egiteko errezeta da. Egoera komikoak, kanta barregarriak eta batez ere baikortasuna eraman zituen mallorcarrak Sondikako Kultur Aretora urtarilaren 26an.



ten dudanarekin.

Bakarrizketak baino gehiago aurkezpenak dira, baina gehienetan aurkezpenak abestiak baino luzeagoak dira.

Ez duzu inoiz kanta serioak egitea pentsatu?

Kontua da inoiz desatseginak izan diren egoerak antzeztu eta horiei esker irribarrea sorraraztea jendeari. Batzuetan gauza batek serioa dirudi, baina umoristok egoeraren beste aldea erakusten dugu, eta horri egiten diogu barre.

Buenrollitina ikuskizuna astero egiten ibili zara Madrilgo Alfil antzokian. Egunero egiteak naturaltasuna kentzen dio?

Ez. Egunero bururatzen zaizkizu gauza berriak eta ikuskizuna inprobisazioaren bidez lantzen duzu. Zeramika egitea bezalakoa da: tornua berdina-berdina biratzen da, baina eskuak arinak badira, eta buztina freskoa, lortzen duzun pieza bakoitza bakarra da.

Zelan prestatzen dituzu bakarrizketak?

Esaten dudana ez dut prestatzen, soilik abestiak. Bakarrizketetan aurreko saioetan esan dudana eta bat-batean bururatzen zaidana botatzen dut. Batzuetan, kantetan jaso ez dudana zerbait ere esaten dut...

Diskoak plazaratu dituzu, baita liburuak ere. Denetarik egiten duzu, ezta?

Tira, liburu batzuetan kolaborazioak baino ez ditut egin. Diskoei dagokienez, grabatu eta plazaratu ditut saioen ostean



"Arimaren poltsikoak beti izango ditugu behintzat, ea dagoen gobernurik han eskua sartzera ausartzen denik!"

"Bakarrizketak baino gehiago aurkezpenak egiten ditut abestien artean, aurkezpen luzeak"

saltzeko, jendeak ikuskizunaren oroigarria etxera eramateko. Eta besterik ez. Artistak dute filosofia erabiltzen dut nik nire karreran.

Nondik dator zure izen artistikoa?

Duela 17 urte saioak egiten hasi nintzenean, Riki esaten zidaten lagunek. Jendeak akatsa egiten du eta normalean "Ricky" idazten du, Ricky Martin idatziko balute bezala. Baina nirea "c" eta "y" barik idazten da, hau da, "Riki". Aspaldian galdu dudana borroka da hori. Ez dakit. Garai berri batean gaudenez eta 44 urte ditudanez, agian hasi beharko nintzateke Ricardo jauna esaten...

TXORIERRI MARMOLDECIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA
Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZTATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

“Egunez egun hobetu gura dot, besterik ez”

IKER JAUREGI | zaldikoa

Iker Jauregi larrabetzuarak 16 urte ditu eta bizitza osoa daroa hipikeari lotuta. Ibilpide duina egiten dabil diziplina horretan, eta gaur egun Euskadiko txapeldunordea da saltu kategorian. Halanda guztiz be, aitatu deuskun moduan, ez deutso garrantzirik emoten irabazteari, ondo paseteari baino.



t: Itxaso Marina / a: I.J.

Nondik edo nogandik jatortzu hipikarako zaletasuna?

Urte bigaz hasi nintzan. Arrebea zaldiz ibiltzen joaten zan eta neuk be aproba egin neban. Gustau egin jatan. Lezaman hasi eta handik Mungiara joan ginan. Bertan jarraitzen dogu gaur egun be. Saltuak egiten bederatzi urte inguru neukazala hasi nintzan.

Zergaitik aukeratu zenduan modalitate hori?

Hipikan modalitate asko dagoz: doma, kross, raid... baina saltua da gehien gustetan jatena. Nire ustez, dibertigarriena eta interesgarriena da. Primeran pasaten dot saltuak egiten.

Entrenamentu gogorrik egin behar da?

Ez, baina denpora asko eskatzen da be. Entrenamentuak gutxi gorabehera ordu eta erdikoak izan arren, aurretik eta ostean badago prozesu bat jarraitu beharrekoa. Prestau egin behar da zaldia, eta beragaz berotu egin behar da, egingo dauen indarrera egokitzeke. Eta entrenamentuaren ostean, barriro be prestau behar dozu zaldia; hau da, bridak, zaltokia

“Saltua modalitate dibertigarriena eta interesgarriena da, nire ustez”

“Etorkizunean zaldiagaz jarraitzea gustauko litxakit, zaletasun moduan”

eta abar kendu. Hori guztia kontuan hartzen badogu, goiz edo arrasti osoa emon leiteke zaldiagaz.

Astean, zenbat aldiz entrenetan dozu?

Udan ia egunero joaten naz Mungiara, baina ikasturtearen barruan, hiru aldiz entrenetan dot astean: zapatu-domeke-



tan, eta beste egun bat aste barruan. Ezin naz egunero joan, ikasi egin behar dodalako.

Zer zabilta ikasten? Gatxa da hipikea eta ikasketak buztartzea?

Batxilergoko lehenengo mailan nago eta orain arte ondo daroadaz ikasketak. Lehentasuna ikasketei emoten deusdaz eta, txarrera egiten badot, zaldia apur bat albo batera itxi beharko dot, beharbada. Baina ez litxakit gustauko zaldia eta hipikea guztiz itxi behar izatea.

Profesionala izateko asmorik ez daukazu, beraz.

Ez, ez dot horrelako asmorik. Gatxa deritxat, gorenera ailegetako, oso-oso ona izan behar zaralako. Nik egunez egun hobetu gura dot; gero eta hobea izan. Baina beste asmo barik.

Institutua amaitzen dozunean, zer gustauko litxakizu ikastea?

Ingeniaritzaren bat edo fisioterapia. Ogibide ezbardinak dira oso, baina biak gustetan jataz. Zaldiagaz jarraitzea be gustauko litxakit, zaletasun moduan.

Hipikatik zerk erakarten zaitu gehien?

Zaldiak berak eta saltuak egiteak. Zaldi bi daukaguz: bata, Nenes, arrebare-



“Zaldiak oso ahalegin handia egiten dauen arren, zaldizkoak be badau oso eginkizun inportantea”

zaldiak. Saltua ez dauelako beti bardin egingo: batzuetan beste batzuetan baino hobeto egingo dau, hobeto edo txarrago ailegauko da... Eta zaldizkoak be jakin behar dau erantzun egokia emoten. Hori zaldia ezagutuz lortzen da.

Txapelketa eta proba askotan hartzen dozu parte...

Bai, Bizkaian, Euskadin... eta, erarik badaukat, nazino mailako probetan be hartzen dot parte, beste erkidego batzuetara joaten naz... Hemen oso maila oneko zaldizkoak dagoz, baina kanpoan irabaztea gatxagoa da, maila altuagoa dalako. Nik nahikotxu sari eta proba irabazi dodaz; halanda guztiz be, garrantzi bera emoten deusat han edo hemen irabazteari. Hau da, ez neuke bereziki sari bat edo beste bat azpimarratuko. Irabazten bada, hobeto. Nori ez jako, ba, gustetan irabaztea? Baina nik ez deusat garrantzirik emoten horri. Nire ustez, ondo pasetea da benetan garrantzitsua.

Proba baten edo bestean parte hartzeko asmorik daukazu?

Momentuz ez. Nahiago dot gauzak etorri ahala pentsau, inoz ez dakizulako zer pasau leitekean.

na da; eta bestea, Simba, neurea. Arrebea kanpoan dabil ikasten, eta horregaitik neuk arduratu behar naz askotan bere zaldiaz be. Biakaz entrenetan dot.

Gaur egun, Euskadiko txapeldunordea zara, saltu kategorian, eta titulua Simbagaz lortu zenduan. Elkar ulertze handia egon behar da zaldizkoaren eta zaldiaren artean, ezta?

Hipikea oso kirol erraza dala pentsetan dau jente gehienak; dana zaldiak egiten dauela. Baina, egia izan arren zaldiak oso ahalegin handia egiten dauela, zaldizkoak be badau oso eginkizun inportantea. Izan be, saltua egiten lagundu behar deusazu zaldiari. Horretarako, ezagutu egin behar dozu animalia, aurreikusi egin behar dozu zelako erreakzino eukiko dauen

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA
TALLERIKALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael Garcia Tejero
Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

Abelino Arraindegia
Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Titanic-a baino iraunkorragoa

Gizakiok nekez bizi gara 100 urte baino gehiago. Estadistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera, 100 urte baino gehiago daben 10.000 lagun inguru dagoz Estatuan, eta horreetako 200 bizkaitarrak dira. Gehienak, 180 inguru, emakumezkoak dira, eta gainontzekoak, gizonezkoak. Beraz, oso arraroa da 1912. urtean baino lehen jaio dan gizon bizkaitarra topatzea, baina Loipun horreetako bat bizi da, Jesús Endemaño.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Loiuako Udala

Hainbat gauza gertatu ziran 1912. urtean: Tibet independente egin zan, errepublika ezarri eben Txinan eta persona batek lehenengo aldiz egin eban saltu paraxutagaz. Ganera, Titanic transatlantiko handia urte horretan hondoratu zan Ozeano Atlantikoko iparraldean, iceberg baten kontra jo eta gero. Urte berean jaio zan Jesús Endemaño. Ehun urte pasa dira eta argi dago Jesús itsasontzi famadua baino askoz gogorragoa eta iraunkorragoa izan dala. “Niretzat 100 urte betetea pozik egoteko modukoa da”.

Jesús Laukarizen jaio zan 1912. urteko abenduaren 31n. Gaztetan bere herrian bizi izan zan. Garai hatan, etxeko ortuan egiten eban behar. “Baratzeta aldapatsua zan eta indabak eta artoa landatzen genduzan. Hasiera batean eskuz edo idien laguntzagaz lantzen genduan lurra, baina gero tresneria erabilten hasi ginan. Ahal genduanean, azokan saltzen genduan lurrak emoten euskuna”.

Geroago Cristina lekeitiarra ezagutu eban eta beragaz ezkondu zan. Ezkondu barriak Loiura, Larrondo auzora, joan ziran biziten eta bertan emon ditue azken 65 urteak. Jesúsek eta Cristinak seme-alaba bi euki zituen: Miren eta Josu. Josuk 65 urte ditu gaur egun eta aitagaz bizi da. Zoritxarrez, Cristina -93 urte zituala- orain dala ia bost urte hil zan. “Oso emakume ona izan zan emaztea eta pozik bizi



izan nintzan beragaz”. Jesúsek egunero dau gogoan emaztea.

Jesús jubiladua da, noski, baina zenbait lantegitan egin dau behar Asuan eta Lutxanan, etxetik gertu. Horreetako baten, esate baterako, kableak garbitzen zituaz azidoa erabilita. Etxean be egiten eban behar, baratzetan, eta indabak, artoa eta patatak zituaz. Jaki horreei esker,



“Nahiko ondo” sentidu arren, Jesúsek ikusmena eta entzumena apur bat galdu ditu

gerraostea ez zan "beste toki batzuetan bestean gogorra" izan. Halanda be, Espainiako Gerra Zibila bortitz-bortitza izan zan. "Hasiera baten euskaldunakaz burrukatu neban; gero preso egon nintzan Santurtzin; eta gero Francoren armadagaz burrukatu behar izan neban. Ez egoan besterik. Kordoban edo Mallorcan ibili nintzan burrukatzen. Esan euskuen are-
rioa han egoala. Egia esan, ez nintzan inoiz lehenengo lerroan ibili, baina handik gertu izan nintzan. Ez ahal da barriro hala-
korik gertatuko!"

Entzumena eta ikusmena

Adituek zenbait gomendio egiten ditue luze biziteko: ohean gitxi egon, gitxi jan, asko ibili... Jesúsek ez deutse jaramon handirik egiten. Izan be, semeak esan deuskun legez, "ordu pilo bat emoten ditu ohean". "Goizero 12:00etan-13:00ean al-
tzen da; gero, gosaria emoten deutso gizarte-langileak; beranduago, bazkaria, eta ondoren, lo-kuluxka egiten dau. Zor-
tziatarako ohera joaten da barriro", labur-
bildu dau Josuk. Asteburuetan lagunakaz biltzen da Sondikan. "Lehen, orain dala gitxi arte, bakarrik joaten zan trenez, baina gaur egun neska batek laguntzen deutso".

Osasunari jagokonez, "nahiko ondo" sentiduten da Jesús, baina egia esateko, ikusteko eta entzuteko ahalmenak apur bat galdu ditu. Aspaldian begi-lausoak kentzeko ebakuntza egin eutsien, baina adinak ez dau parkatzen. Danetarik jaten dau eta ez dau ezer berezirik egiten osasuntsu ibiltzeko. Hain luze biziteko sekre-
turik ez dau Jesúsek, baina dirudienez, genetika bere alde dau, bost arrebak 90 urte baino gehiago zituela hil ziralako.

Loiu herriak ospatu gura izan zituan Jesúsen urteak eta Larrondoko Gautxoriak alkarteak omenaldia antolatu eutsan abenduan, Larrondoko Kultur Etxean. Aureskua dantzatu eta makila emon eutsien bertan. Ekitaldian hainbat herritarrek, Loiu Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hartu eben parte. "Omenaldia oso hunkigarria izan zan, lagunak, auzoki-
deak eta senideak bildu ziralako bertan". Titanic itsasontzia hondatu egin zan eta harrezkero hainbat film eta liburu egin deutsiez. Jesúsek pozik bete ditu 100 urte, eta hori pelikulak eta argitalpenak baino garrantzitsuagoa da. Hau da marka, bai horixe!



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



BFA
DFB



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

KONFETTI
GARI, MONTXO ETA
JOSE LONTXO pailasoak
Otsailak 17, 17:00etan
Prezioa: 6 €



HERENSUGEA - HARITZAREN BIHOTZA
80' AG EUSKARAZ (2D)
Otsailak 2, 18:00
Otsailak 3, 17:00

LAS SESIONES
95' - EG-16 (2D)
Otsailak 2, 20:30
Otsailak 3, 19:30

AMIGOS PARA SIEMPRE
77' AG (2D)
Otsailak 9, 18:00
Otsailak 10, 17:00

DJANGO DESENCADENADO
165' (2D)
Otsailak 9, 20:30
Otsailak 10, 19:30

BLACKIE & KANUTO
83' AG EUSKARAZ (3D)
Otsailak 23, 18:00
Otsailak 24, 17:00

HITCHCOCK
98' EG-12 (2D)
Otsailak 23, 20:30
Otsailak 24, 19:30

ZINEA



2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izaren arabera programazioak aldatuak izan daitezke

t/a: Jon Goikouria

**Zergatik egin zenuen ihes Txorierri-
tik?**

Momentu honetan, lekuz aldatzeko erraztasun handia dugu orokorrean, eta aukerak agertzen direnean, aukera horiei gogor heltzea da onena. Sondikan oso ondo bizi den arren, banuen gogoia beste nonbaitera joateko. Horregatik, lana utzi eta Bartzelonara heldu nintzen ingeniari-tza ikasteko asmoz.

Ba al dago ezer faltan duzunik?

Batez ere Euskal Herrian naturara hurbiltzeko dugun erraztasuna, mendira joateko erraztasuna. Ordubete behar da Bartzelonatik irteteko eta horri beste horrenbeste gehi diezaiokezu edozein menditara joateko. Bartzelonan nagoela, mendira joateko gogoia bidean bertan kentzen zait. Hori bai, zure pasioa eskalatzea bada, Bartzelonan eta Katalunian daude Europako gunerik aberatsenetarikoak.

Eskalada egiteko gune asko eta asko dago eta, gutxienez, etekina ateratzen diot horri. Horrezaz gainera, eta nola ez, familia eta koadrila ere nahiko botatzen ditut faltan. Niretzat, ezinbesteko osagai bi dira bizitzan. Baina kanpoan egonda, denbora arinago pasatzen denez, batzuetan ez ditugu senideak behar bezala maitatzen.

**Noiztik datorkizu garagardoareki-
ko pasio hau?**

Pasio berria da niretzat. Uste dut gure inguruetan ez dagoela garagardo tradizio handirik, eta duela gutxi arte ez zen bate-re erraza komertzialak ez ziren garagardoak dastatzea. Zentzu horretan preso bizi izan garela uste dut. Garagardo komertziala sinplea da, era guztietan. Horregatik agian, duela gutxi arte ez naiz konturatu edari honek eskaintzen dituen zapore eta aukera guztiez. Mundu bat zabaltu zait begien aurrean. Ezarritako bidetik irtetzea

*“Etxean egindako
lehenengo birra
bakardadean eta
sekretuan dastatu
nuen, badaezpada”*

“Ezarritako bidetik irtetzea plazer bat izan da niretzat”

ARITZ BIZKARRA | garagardo-egilea

Bartzelonan dagoela, Aritz Bizkarra sondikoztarrak *Clot* sortu du: bere etxeko garagardoa. 2012. urteko azken txanpan, lagun batzuekin Clot Bartzelonako auzoko pisuan bildu eta garagardo lantegi bat inprobisatu zuten han. Emaizta, bere hitzetan, bost litroko pertsonalitatez betetako jaioberria.



plazer bat izan da niretzat, hala eginez garagardoa etxean egitea lortu baitut.

Zelan bururatu zitzaizun zure garagardoa sortzeko ideia?

Gizartea osatzen dugun hiritarrok, esparru guztietan, gauzak gero eta gehiago planteatzen hasi gara eta gehiago informazio gehiago lortzeko gai gara: liburuak, aldizkariak, blogak, foroak eta abar. Informazioa ondo tratatuz gero, edozer egiteko gauza gara eta uste dut, eta niri garagardoarekin gertatu zait. Webgune batzuk ikuskatzen hasi nintzen, zenbait foro aztertzen, Bartzelonako garagardo dendetan kuxkuxean ibili nintzen... eta azkenean liburu pare bat erosi nituen. Hori guztiori ezagun batzuen gomendioen laguntzarekin egin nuen eta buru-belarri jarri nintzen. Irakurtzen hasi nintzenean ez nuen piperrik ere ulertzen: jarraitu beharreko pausuak, erabili beharreko tresnak, ezta garagardoaren munduan erabiltzen den terminologia bera ere. Ezertxo

*“Auto-produkzioetik
gustatzen zaizkit
prozesuaren
bizitasuna eta
errezeta bakar
batek ekar ditzakeen
emaitza ezberdinak”*

ere ez. Baina apurka-apurka, eta konturatu gabe, epemuga bat jarri eta lagun batzuk gonbidatu nituen etxera afaltzera. Ez zegoen atzera egiteko modurik.

Zer nolako esperientzia izan da zure garagardoa sortzea?

Hasiera batean kaotikoa izan zen. Sentsazio hori nuen nik, behintzat. Baina

azkenean uste baino hobeto aterata zena. Temperatura eta prozesu zehatz batzuk espresuki errespetatu behar dira. Era berean, garbitasuna oso garrantzitsua da, produktua ez kutsatzea berebizikoa baita. Gomendio horiez gainera, oso dibertigarria izan zen lehenengo saiakera. Emaitza positibo horrek lehen saiakeraren tentsioak ahaztarazi dizkigu. Hartzidura prozesuak behar dituen 20 egun amaigabeak igaro ostean dastatu nuen etxean egindako lehenengo birra, bakardadean eta sekretuan. Horrela, asmakizuna gaizki irteten bazen inortxok ere ez zuen jakingo, kar, kar...

Zenbat pertsona behar dira garagardo bat behar bezala prestatzeko?

la ez da baliabiderik behar eta, nire kasuan, kostua ez da altuegia izan: lapiko handia, 0-100 °C bitarteko tenperaturak neurtzeko termometroa, likidoentzako dentsimetroa eta edozein sukaldetan aurki daitezken bestelako tresnak. Horre-





zaz gainera, tresna berezi batzuk erosi behar izan ditut, iturriak jartzeko tresna eta iturriak, esaterako. Bestalde, prozesu osoa egiteko, nahikoa da pertsona bakar batekin, baina lagun-koadrila bertan ego-teak esperientzia aberastu egiten du.

Laguntzaileen artean lehengusua izan zenuen.

Bartzelonak euskaldun asko hartzen ditu, ikasketak edo lana direla-eta. Orain dela hilabete batzuk Ander heldu zen hona. Master bat egitera etorri da Bartzelonara eta noizbehinka korrika egitera irteten gara Diagonaletik. Baina dena ez da nekea eta sufrimendua, eta noizean behin, ikasketek uzten digutenean,

Durum bat jaten dugu Rabalen, birra batez lagunduta, nola ez!

Clot, la birra del barri: zelan definituko zenuke?

Jaioberria. Eta jaioberrieekin gertatzen den moduan, definitu barik dago, nahiz eta hasiera-hasieratik pertsonalitate propioa izan. Nota bat jartzekotan, ondo bat jarriko nioke. Baina orain, ezaugarri batzuk leundu eta beste batzuk gogortu behar ditudala uste dut. Auto-produkzio-tik gehien gustatzen zaidana da prozesuaren bizitasuna eta errezeta bakar batek emaitza ezberdin ugari eman ditzakeela. Hots, ezin da esan gauzak egiteko era bakarra dagoenik: metodologia bizirik dihardu, beti mugimenduan. Horregatik, etxean egindako garagardo honi gaur eman diodan definizioa ez da baliagarria izango biharko.

*"Garagardo honi
gaur eman diodan
definizioa ez da
baliagarria
izango biharko"*

*"Mota ezberdinak sortu
nahi ditut eta ideia
berri batzuk ditut
buruan bueltaka"*

*"Etxeko garagardoan
fenomenoa
zabaltzen ari
den tendentzia da"*

Clot zure auzoaren izena da. Xar- marik al du?

Auzoa gustuko dut, auzoko erdigunea herri baten antzekoa da: oinezkoen bidea, mende hasierako hiru-lau pisuko eraikinek osatzen duten zonaldea eta garai bereko merkatua ditugu bertan. Gainera, etxetik minutu gutxira dagoen Bodega Sopena izeneko ardandegi zaharrean koardilatxoa egin dugu eta ostegunero jende dezente biltzen gara bertan bermut, garagardo edota ardo pote batzuk hartzeko.

Aurkezpen ofiziala, Sondikan. Zela- ko harrera izan zuen Clot garagardoak?

Kontrabandoan eraman nituen lau ale Sondikara eta gurasoei gustatu zitzairen, naiz eta zapore garratza izan. Beste ale bat Berrizeko lagun bati eraman nion, lagun horrek ehunka litro sagardo egiten baititu urtero. Azken horren iritzia zeharo da garrantzitsua. Nota ona jarri zidan horrek ere bai. Baloraziook aurrera jarraitzeko gogoia areagotu didate.

Lehen saiakerak bost litroko emai- tza izan du. Eta orain?

Lehenbiziko proba ondo atera da. Horregatik, orain kantitate handiagoa egin nahi dut. Baina ez bakarrik litro



gehiago; garagardo mota ezberdinak ere sortu nahi ditut. Oraingoa *Pale Ale* motako garagardoak izan da, fabrikatzeko errazetarikoa eta arinenetarikoa. Hemendik aurrera milaka errezeta daude egiteko. Hurrengo baterako ideia berri batzuk ditut buruan bueltaka: *Indian Pale Ale*, *Bitter*, *Stout*, *Porter*, *Ale Gorria*, *Belgiarra*... epe laburrerako saiatu nahiko nituzke. Gero gerokoak.

Aldaketarik egitekotan, zelan hobetuko zenuke Clot?

Gehiago orekatzen saiatuko naiz. Egozteko orduan ez nituen kalkulu batzuk ondo egin, eta horixe izan da garagardoak uste baino gehiago garratzu duen faktorea. Horrezaz gainera, indarra falta zaio: likidoaren dentsitatea. Azkenik, aparra berehala desagertzen zaio, eta nik neuk

gustuko dut apar hori bertan mantentzea. Baina tira, dena konpon daiteke.

Zure garagardoak sortu zenuenetik zorrotzagoa bihurtu zara.

Garagardoan fenomenoak garagardo batzuk beste batzuk baino gehiago gustuko ditudan ulertzen lagundu dit, eta panorama zelakoa den ikusita, badituzte nire zerrenda beltzean garagardo mota famatu batzuk: pikanteak, ahozabaleak; mingotsak, eztarrian; eta gasifikatuak, urdailean. Horiek baino lehen ura edango nuke, ziur. Txirriporroa naizela eman deza-ke, baina zer esango luke ardoa gogoko duen norbaitek supermerkatuko ardoa emango bagenio?

Garagardoak al da Bartzelona?

Orokortzea ona izan ez arren, Bartzelona oso *snob*-a da. Beti modan, eta azkenengo tendentziak soinean. Dena dela, benetako munduan jende xumea da gehiena, eta etxeko garagardoan fenomeno modan jartzen hasi dela esango nuke. Badira etxeko garagardoak egin edo saltzen dituzten hainbat komertzio, eta zabaltzen ari den tendentzia dela dirudi. Baina ez Bartzelonan bakarrik; Bilbon, esaterako, duela gutxi alde zaharrean ireki dute mundu honetara murgiltzeko aukera ematen duen lokala: La Catedral de la Cerveza.

Bestelako ideia originalik al duzu buruan?

Burua pil-pilean dut beti. Karrera bukaerako proiektu bezala agian mikrogaragardotegi bat egitea pentsatzen nabil.



SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinen eta lokalak barutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzorua deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34

Ezagutu, aukeratzeko



Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak “Ezagutu, aukeratzeko” programa jarri du abian, eta hura Gazte Ruta Planaren barruan dagoenez, Gazteria Siletik eta Ekonomia Sustapenerako Siletik (EGAZ Txorierriren bitartez) bultzatu du. Egitasmoan Politeknika Txorierrri Ikastetxeak eta Txorierrri BHIk ere hartzen dute parte. Programak helburu hau du: gazteek gaur egun dauden ogibideak, haien garrantzia eta lan-merkatuan duten eskaria ezagutzea.

“Ezagutu, aukeratzeko” ikasketa- eta lanbide-orientabiderako erreminta da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleei eta Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetako ikasleei zuzenduta dagoena. Erreminta honen bidez laguntza eman nahi diegu gazteei, ikasketa eta lanbidearen inguruko erabakiak hartzea errazago eduki dezaten eta, hala, dauden hezkuntza-aukerak egoki ezagut eta hauta ditzaten.

Aurreko lerrootan aipatutakoaz gainera, esan beharra dago ezinbestekotzat jotzen dugula gazteek haien gaitasunak garatzea. Izan ere, lan-merkatuan sartu baino lehen, jakin behar dute beharrezkoa dela trebetasun sozialak eta gaitasun profesionalak garatzea, hala nola iniziati-

Zeintzuk dira helburuak?

Gazteei trebetasunen eta gaitasunen gaineko informazioa eta orientabideak ematea, erabakiak modu eraginkor batean hartzeko gauza izan daitezzen. Erabakiak hartzeko orduan, ondo ezagutu behar dituzte gaur egun dagoen hezkuntza-eskaintza eta ogibide bakoitzak eskatzen dituen gaitasunak.

Helburu espezifikoak:

–Eskualdean nagusi diren arlo industrial bi bultzatzea: Industria eta Zientzia-teknologia.

–Gazteei ogibideen eta haien eskakizunen berri modu atsegin, ezberdin eta motibagarri batean ematea.

–Prebentzio-orientabideak ematea, beharrezkoak diren trebetasun eta gaitasun sozialei buruzko informazioaren eta heziketaren bitartez.

–Ogibideen eta haietan eskatzen diren gaitasunen aldeko jarrerak sustatzea.

–Jarrera ekintzailea, autoikaskuntza eta lan kooperatiboa bultzatzea.

–Epe labur eta luzera, gaztetxoak aldaketa sozialaren eragile bihurtzea ahalbidetzea.

–Ogibidea aukeratzeko orduan, nesken eta mutilen erabakian eragina duten genero arloko estereotipoak gainditzea.





Zelako jarduerak egiten dira?

*Programak gazteei
gaur egun dauden
ogibideak eta haien
garrantzia eta lan-
aukerak ezagutzera
ematea du helburu*

*Eskualdeko
ekonomiaren ardatz
nagusia diren lanbide-
arloan bi hartzen ditu
kontuan: Industria eta
Zientzia-teknologia*

ba izatea, arazoei aurre egitea eta aldaketara egokitzea. Hau guztia kontuan hartuta, gure asmoa errealitate hori ikastetxeetara, ikasleengana eta haien familierengana hurbiltzea da.

Hala, ikaskuntza eta benetako bizitzaren arteko lotura proposatu dugu, zeina eguneroko ohituretara hurbildu baitugu. Hurbiltze hori ardura, solidaritatea eta edozein motatako ezberdintasunarekiko begirunea ahalbidetzen dituzten balioen transmisioan oinarritu dugu. Era berean, aipatutako balioak eta jarrerak praktikara eramanez eta eguneroko bizitzaren hainbat egoeratan ezarri ditugu, baita lan-jardueraren garapenean ere. Orokorrean, programa honek gaur egun dauden ogibideak eta lan-munduari inguruko informazioa gazteei jakinaraztea du helburu. Horretarako, elkarri lotuta dauden modu ezberdinak erabiltzen ditu.

“Ezagutu, aukeratzeko” programak eskualdeko ekonomiaren ardatz nagusia diren lanbide-arloan bitan eta haien lan-aukeretan batzen ditu ahaleginak, eta hori genero-berdintasunaren ikuspuntu batetik egiten du. Arloak Industria eta Zientzia-teknologia, batez ere Fabrikazio mekanikoa eta Elektrizitate-elektronika, dira.



Bideratze-programa eta tutoretza

Txorierrri BHI-n ematen da eta DBHko hirugarren mailako ikasleei dago zuzenduta.

“Ezagutu, aukeratzeko” jardunaldia

Topaketa DBHko hirugarren eta laugarren mailetan seme-alabak dituzten gurasoei dago zuzenduta, zeinek Industria eta Zientzia-teknologia arloek eskaintzen dituzten heziketa-programak eta lan-aukerak zuzenean ezagutu nahi baitituzte, eta, horrela, informazio handiagoa eduki, seme-alabei aholkua eman ahal izateko. Programaren barruan “Industria eta Zientzia-teknologia arloetako ikasketak eta lan-aukerak, Txorierrin” hitzaldia dago. Era berean, bisita gidatua egiten da BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroa. BTEK Zentroa Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkean dago, eta gazteei teknologia hurbiltzea du helburu, batez ere bigarren hezkuntzako ikasleei, kultura zientifiko-teknologikoa bultzatuz. Jardunaldia azaroaren 27an egin zen eta oso harrera ona eduki zuen.

“Ezagutu, aukeratzeko” mahai-ingurua

Topaketa Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailetan seme-alabak dituzten gurasoei dago zuzenduta, zeinek Zientzia- Teknologia eta Industria arloetako ikasketen garrantzia, heziketa-programak eta lan-aukerak zuzenean ezagutu nahi baitituzte, eta, horrela, informazio handiagoa eduki, seme-alabei aholkua eman ahal izateko. Programak eskualdeko ikastetxeetako tailerrak eta laborategiak bisitatzeak aukera ere ematen du.

Arloko informazioa emateko topaketak

Hitzaldiak egiten dira eta bertan Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek eta Fabrikazio mekaniko eta Elektrizitate-elektronika arloetan dabilen eskualdeko enpresek hartzen dute parte. Topaketek helburu hauek dituzte:

–Ikasketak aukeratzeko eta langileak hartzeko orduan, irizpide sexistarik ez erabiltzearen garrantzia azpimarratzea.

–Industria arloan dauden familien ikasketak azaltzea: edukiak, lanpostuak, lehiakideak...

–Enpresaren errealitatea ezagutzera ematea: historia, helburua, ikuspegia, jarduera, lanpostuak, banaketa, langileria, aukera-berdintasunari dagokionez enpresak duen politika eta lanpostu ezberdinek eskaintzen dituzten gaitasunak.

Enpresak bisitatzea

Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek aukera dute enpresa bat bisitatu eta hango funtzionamendua ezagutzeko.

Egonaldiak enpresetan

Ikasleek enpresa batean egoteko aukera dute, goizean, eta agintzen dizkieten lanak egiten. Enpresaren langile-tutore batek eta ikastetxeko tutoreak ikuskatuko dute haien lana.

Trasteek badaukie beste aukera bat

Erabilten ez doguzan traste zaharrez beteta daukaguz gutariko askok etxea, trastelekua edo garajea. Lezamako lagun talde batek erabagi dau gauza horreei guztiei beste aukera bat emotea eta, aldi berean, zerbait egitea ingurumena zaintzeko.

t: Itxaso Marina / a: L. T.

Lezamako Trukazaleak taldea joan dan udan sortu zan. "Lagunen arteko bazkari baten gengozala, etxean gauza larregi gordeten doguzala komentau genduan. Eta gauza horreek beste persona batzuek erabili ahal izango leukiezala, beharbada". Baina horreek ez ziran izan bazkalondoan trukearen alde emon ziran argudio bakarrak; gaian zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta errazoi gehiago topaten zituen, trukea ardatz nagusitzat eban ekimen bat martxan jartzeko. "Erabilten ez doguzan gauzei beste erabilera bat emon ahal jakela uste dogu. Gainera, guztiok gatoz bat gaztelaz 3R deritxonagaz: gitxitu, berriro

"Arrazoizko modu baten kontsumidu behar da. Gainera, gizarte solidarioago bat bultzatzen dogu trukearen bidez"

"Bakotxa bere gauzen arduraduna da eta gura dauen trukea adosten dau"

erabili eta birziklatu. Hau da, arrazoizko modu baten kontsumidu behar dala uste dogu, eta holan ingurumena zaindu. Era berean, gauzak trukaten dituzunean, hartu-emonak daukazuz beste persona batzukaz, eta gizarte onberagoa, solidarioagoa eta arduratsuagoa bultzatzen dozu. Gauzei balio handiagoa emoten be ikasten da".

Urrian truke azoka bat antolatu eben lehenengo aldiz eta, adierazo deuskuen moduan, taldearen itxaropen guztiak gainditu zituan. "Oso ondo urten eban danak. Batez be, umeen jarrerak itxi gintuan aho zabalik; izan be, euren gauzak ekarri zituen eta oso trebeak izan ziran negoziazioetan". Trukezaleak taldeak helburu apalak ditu, herri mailakoak.





Binilo apaingarria
Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz
Biniloaren tamaina: 43 x 58 cm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik
Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90 €

BEZ DABNE



cianoplan
global printers
applications + business
Bizkaiko ZTP, 105
ZAMUDIO

"Guk lekua ipinten dogu, topagunea. Trukea diru bakoa izan behar dala hartzen dogu abiapuntutzat, eta trukea interesdunen artean egiten da. Bakotxa bere gauzen arduraduna da eta gura dauen trukea adosten dau". Azokea amaitzen danean, alkarreak bere gain hartzen ditu jaubeek etxera eroan gura ez dituen objektuak. Igaz, esate baterako, Emauseko traperoei emon eutseezan, bigarren erabilera bat euki eien. "Udalak leku bat itxi euskun Uribarri Topalekuan, azokea bertan egiteko. Eskolako Guraso Alkartearen laguntasuna be jaso genduan, euren bazkide guztiak animau zituelako azokan parte hartze-ra".

Lagungarri bat

Martxoan beste azoka bat antolatze-ko asmoa dauka taldeak. Eguna eta lekua datozan egunotan jakinarazoko ditue. "Aurreko azokearen antzekoa izango da, baina beste leku baten egiten ahaleginduko gara. Toki handiago baten, ahal dala, aire zabaleko guneak dituan leku baten". Azokara egoera onean dagoan edozer eroan leiteke. "Batez be,

*"Truke azokea antolatu
dogu azarorako, eta
zerbitzuak trukatzeko
aukerea be egongo
da bertan"*

*"Aurreretxiak baztertu
beharko gendukez
eta trukea gure
egunerokotasunaren
parte bihurtu"*

liburuak, arropea, jostailuak, diskoak eta era askotako tresnak ekarri ziran igaz. Lekuagaz arazoak eduki genduzanez, objektu txikiak izan behar izan ziran, baina objektu handien argazkiak be onartu genduzan, parte-hartzaileek hareek be trukau ahal izan eiezan". Alkarreak aitatu deuskun moduan, aurtengo

azokeak nobedade bat eukiko dau: erabiltzen ez diran gauzak ez ezik, zerbitzuak be trukatzeko aukerea egongo da. Dinamikea hau izango da: zer behar dot eta horren truke zer eskini neike. Adibide bat ipintearren, lagun bik ados jarri leitekez alkarregaz bata ulea ebagiko deusala besteari, eta horren truke bigarrenak erosketak egingo deusaz lehenengoari. "Azokan zerbait trukatzeko daukan edozeinek hartu lei parte, zerbait eskuratu edo eskini gura dauen edozeinek. Gugaz lezamakotrukezaleak@gmail.com helbide elektronikoaren bitartez jarri leitekez hartu-emonetan".

Taldekideten eretxiz, trukea lagungarri bat izan leiteke krisiari aurre egiteko, eta haren inguruan dagozan aurreretxiak edo zalantzak albo batera itxi beharko lirakeke. "Beste batek erabili daue-na geuk erabilteari deusagun bildur, lotsa edo aurreretxi hori, adibidez. Are gehiago, gure ustetan, trukeak ez dau krisiaren ondorioz egiten dan praktika bat bakarrik izan behar; guk uste dogu ohitura bihurtu behar dogula, gure egunerokotasunaren partea izan daiten. Gaur, gero eta beti".



"Jende zoragarria ezagutu dut berton"

ANLLY RODRIGUEZ | etxeko langilea

Bere izena Yineta Solanly da, baina txikitan bere arrebetariko bat "Anlly" deitzen hasi zitzaion eta gaur egun lagun guztiek hala esaten diote. Derion bizi den kolonbiar honek 42 urte ditu eta bere herritik orain dela 12 urte alde egin zuen. Esan digun moduan, ez zaio batere kostatu Txorierrira egitea.



a: Gaizka Eguzkitza

Medellinekoa zara.

Hainbat arrazoiengatik erabaki nuen bertatik alde egitea. Alde batetik, garai hartan ez nuen lanik; eta bestetik, bizitzeko beste modu bat ezagutzeko gogo nuen. Madrilera ailegatu nintzen, eta, egia esan, ez nuen batere ondo pasatu han. Lagunek gauza onak baino ez zizkidaten kontatzen, baina bertara ailegatu nintzen, konturatu nintzen dena ez zela hain ona.

Zer gertatu zen, ba?

Lehenengo eta behin, kulturari lotutako ezberdintasunak oso handiak dira, gastronomia arlokoak... Familia, lagunak eta nire lekua Medellinen nituen, eta Madril pertsona bakar bat ezagutzen nuen, etxebizitza batean beste atzerritar batzuekin bizi zena... Etxe batean hasi nintzen lanean eta nik, adibidez, ez nekien lisatzen... Atzerritarrek gustatzen ez zitzaizkien pertsonekin egin nuen topo eta txarto tratatu ninduten... Madril lau hilabete eman nituen. Nire helburu bakarra hau zen: nire herritik alde egin ahal izateko utzi zidaten dirua batu, zorra kendu eta Medellinera itzuli.

"Madrilera ailegatu nintzen, konturatu nintzen dena ez zela hain ona"

"Oso barneratuta ditut bertoko erritmoa, ohiturak, gastronomia..."

Baina Txorierrira etorri zinen.

Familia nuen Sondikan eta animatu ninduten hona etortzera. Oso zoriontsua naiz, berton jende zoragarria ezagutu dudalako. Etxe batean lana topatzen lagundu zidaten, eta handik hona lanean izan naiz beti. Beno, lan egin barik urte bi eman nituen, nire semea jaio zenetik urte bi bete zituen arte. Hasieran, lagun batzuk bizi ginen Sondikako etxebizitza batean eta ni emakumezko bakarra nintzen. Batzuek prostituta nintzela uste zuten, baina



niri berdin zidan. Azkenean, jendea badoa zu ezagutzen, asmo onekin eta lan egiteko gogoarekin etorri zarela konturatzen dira... Nik ez diot inori errua botatzen, bizitza honetan denetarik dagoelako, han eta hemen, eta nik ere zintzo jokatzeko duen atzerritarren bat ezagutzen dudalako. Haiek dira ospe txarra ematen digutenak.

Bizitza ezustea da...

Bai. Gaur egun nire senarra dena hilabete batzuk beranduago ailegatu zen.

Lagunak ginen Kolonbian, besterik ez. Gainera, nik ez nuen ezkontzeko asmorik, ezta seme-alabak edukitzeko asmorik ere... Baina harreman estuak maitasuna ekarri zuen eta azkenean ezkondu egin ginen. Seme bat dugu.

Euskalduna eta kolonbiarra?

Ez, ez, bera euskalduna da! Argi du bera bertokoa dela, eta ez Kolonbiakoa. Ondo dago, baina gurasoen sustraiak ere maite behar dituela esaten diot nik, hara inoiz bueltatu beharko garen ez dakigulako. Dena dela, guk espero dugu berton gelditu ahal izatea. Senarrak eta biok lana dugu hemen, eta lagunak. Bizitza Txorierriin egin dugu.

Zer da gehien gustatzen zaizuna Txorierriitik? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana lasaitasuna da. Orain Derion bizi gara eta egia da hemen Sondikan baino mugimendu handiagoa dagoela, baina ez du zerikusirik Madrilekin... eta are gutxiago Medellinekin! Orain dela urte pare bat familia ikustera joan ginen eta oso hiri estresagarri batekin egin nuen topo. Zaila izan zen, izan ere, 12 urte daramatzat handik kanpo eta oso barneratuta ditut bertoko erritmoa, ohiturak, gastronomia... Senarra eta biontzat zaila izan bazen, pentsa ezazue gure semearentzat! Bestalde, gutxien gustatzen zaidana... bai, hegazkinen zarata.

Euskal Herria ezagutzen zenuen hona etorri baino lehen?

Ez, mapan Espainia bilatzen duzunean, hiriburuari baino ez diozulako erreparatzen... Hona etortzeko erabakia hartuta nuela esan nuenean, ea ondo pentsatuta nuen galdetzen zidaten, arazoak zeudela... "Baina ni Medellinekoa naiz eta!" pentsatzen nuen nik.

Zelakoa da bizitza han?

Egoera gogorra dago bertan, eta indarkeria eguneroko gauza da. Tiroketa bat-edo ikusten duzunean ikaratzen bazara ere, barru-barruan normaltzat hartzen duzu... Gizarte-mailak ondo berezitu-ta daude eta ez dute harremanik haien artean: aberatsak leku batean bizi dira, eta txiroak beste batean, eta oraindik txiroa-goak direnak beste batean... Jendeak ikasteko aukera edukiko balu, ez litzateke hainbeste indarkeriarik egongo, lan egin ahalko luketelako. Baina gehienek ez dute aukerarik eta haietaz aprobetxatu egiten dira, etxera dirurik eramaten ez badute, ez dutelako jaten. Lehenik droga hartzera

gonbidatzen dituzte eta gero beste batzuk hiltzeko agintzen diete... Hamalau urte inguru dituztela hasten dira mundu horretan eta gehienak hil egingo dira, seguru.

Exodo handia ere badago herrixketatik hirira...

Bai, gerrillak eta paramilitarrek inguru batzuk kontrolatzen dituzte eta jendeak handik alde egitea baino beste erremediorik ez du, eta hirira joaten dira... Hori beste arazo bat da. Indarkeria alde batera utzita, esan beharra dago ikasketak oso gaztea zarela amaitu behar dituzula, lana topatu nahi baduzu. Berrogei urtetik gorako lagunek zailtasun handiak dituzte lana topatzeko... Eta polita izan behar zara! Ederta-

sun-kanon batzuk betetzen ez badituzu, ez zaituzte hartzen lan baterako edo besterako. Harrigarria da han dagoen edertasunerako eta kirurgia estetikorako zaletasuna. Kirurgilariek dirutza handia omen dute!

Non ikusten duzu zeure burua etorkizunean?

Etorkizun hurbilean, hemen. Nire semeak berton dituelako aukera gehiago, eta nik ezin dizkiot aukera horiek ukatu. Gainera, argi dut bera hemen geldituko dela. Baina semea heldua eta independentea denean eta guk erretiroa hartzen dugunean, ez dakit... Denboraldi batean berton, eta beste denboraldi batean Medellinen, beharbada. Egia esan, ez dakit. Ez dakizu bizitzak zer ekarriko dizun!



Zamudio-Zugasti eta Txorierri (I)

t/a: Sabin Arana

Besteak beste, Zamudio, Asua, Martiartu, Getxo eta Lezama ziren leinu nagusiak Asua bailaran, 15. gizaldian. Larrabetzuko Zugasti leinuak eta Zamudioko leinuak 1500. urte inguruan egin zuten bat, Hordoño Zamudiotarraren eta Pascuala Zugastitarren arteko ezkontzaren ondorioz. Bestalde, aipatu beharra dago Lezama leinuak beste bide bati ekin ziola. Leinuaren adar bat Larrabetzun finkatu zen, Gaztelako erregearen gudaroste hor-

nitzaila bihurtuko zena; beste adarra, beharbada nagusia zena, Butroi leinuak hartu zuen beretzat. Leinu honek titulu hauek zituen: Butroi eta Muxikako jauna, Ciudad Realeko dukea, Aramaioko kondea eta Eskilatxeko printzea, beste batzuen artean. Era berean, lur-eremu handiaren jabeak izateaz gainera, Olazarre burdinola eta Errotabitxi errotaren jabeak ere baziren.

Zamudio-Zugasti leinuaren historia zenbait ataletan emango dizuegu ezagutzera eta oraingo honetan lehenengo

kapitulua aurkeztuko dizuegu. Lehen aipatu dugun Pascuala Zugastitarra Martin Iñiguez Zugastiren alaba izan zen, zeina XV. mendearen amaieran Bizkaiko foru alkatea izan baitzen. Zamudiotarrak ere baziren foru alkatetzan ibiliak. Hordoño eta Pascuala Zamudiotarren bizi ziren eta oinordeko Juan Zamudio eta Zugastitar eduki zuten. Azken hau Leonor Abendaño eta Ganboatarrarekin ezkondu zen. Emakumeak ezkonsari ederra eraman zuen Zamudiora, Zamudio-Zugasti leinuaren ondasunen parean egoteko.



Irudian Larrabetzu hiria 1500. urtean zelan izan zitekeen irudikatzen ahalegindu gara, eta, horretarako, garai hartako agerietan agertzen diren datuez baliatu gara. Errebale eta Etxeoste inguruko eraikuntzetatik kanpo jarri dugu Zugasti leinuaren dorretxe berria; eta haren aldamenean, Sarrikolea burdinola. Dorretxearen kokapena kontuan hartzen badugu, baliteke hura hiria baino lehenagokoa izatea, Lezamarako bidea ere bere aldamenetik pasatzen baitzen.

Zamudiotarren dorretxea (Zamudiotorre) nabarmen aldatu da denboraren poderioz. Hordoñok unean uneko maizterrei alokatu zien dorretxearen inguruan zegoen lur-eremu zabala, eta ondorioz eraikina baserritzat erabili zen mendeetan. Ondasun handiak zituen arren, Hordoñok dirua xahutzeko gaitasun handia ere bazuen, eta horregatik ez zuen baliabide askorik jarri dorretxea mantentzeko. Udal liburutegia Zamudiotarren dago gaur egun.



Senar-emazteon semea eta oinordekoa, Hordoño Zamudio eta Zugasti, Maria Frantziska Martiartu eta Getxotarrarekin ezkondu zen, eta, horri esker, berriro ere nabarmen handitu ziren leinuaren ondasunak. Hala, Larrabetzu eta Asua bailara-ko lur eremu zabala haienganatu zuten.

Baina familia bien arteko ituna hara-
tago joan zen. Izan ere, Hordoñoren ama
eta Frantziskaren aita ezkontzea adostu
zuten, biak une hartan alargunak baitzi-
ren. Are gehiago, Ageda Frantziskaren
ahizpa eta Martin Hordoñoren anaia-
ren arteko ezkontza ere adostu zuten, azke-
nean hura burutu ez bazen ere. Aliantzak
kontuan hartzen baditugu, pentsa deza-
kegu familia biek nolako ondasun-bilketa
egiteko asmoa zuten.

Maria Frantziska, Hordoñoren emaz-
tea, laster hil zen eta bikoteak eduki
zituen seme-alabengandik Antonia izan
zen ezkontzeko aukera eduki zuen baka-
rra. Beraz, hau oinordeko bihurtu zen.
Antonia Lekeitioko Otxoa Urkizarekin
ezkondu zen, baina ez zuten seme-alaba-
rik eduki. Otxoa Urkiza pertsonaia ospe-
tsua izan zen, eta Sevillako Indietako
Kontratazio Etxeko epaile eta kontulari
nagusi ibili zen.

Hordoñok, bere aldetik, alaba bat
eduki zuen ezkontzatik kanpo eta hura
ere agertzen da agerietan. Antza denez,
Hordoño eta Mari Iñiguez Goikoolatarra
elkarrekin ibili ziren gaztetan eta harre-
man horretatik Petronila Zamudiotarra
jaio zen. Hordoñok alabatzat aitortu zuen
umea eta Goikoolako dorretxean Zugasti
leinuaren armarrak ipini zen, zeina orain-
dik ikusgai baitago. Jarrera honetatik,
garai hartako handikiek ezkontzatik kan-
poko harremanak arazo barik onartzen
zituztela atera dezakegu ondorio. Lei-
nuentzat abantaila zen ahaidetasunezko
elkarrekin arteko lotura zabala sortzea,
eta hori ezkontzatik kanpoko seme-alab-
en bitartez ere lortzen omen zuten.
Petronila Pedro Sarrikoleatarrarekin ez-
kondu zen eta haien semea, Domingo Sa-
rrikolea eta Zamudiotarra, priorea izan
zen Sevillako Kontratazio Etxean. Antonia
bere izeko-ordeak agian zerikusia izan
zuen izendatze horretan.

Hurrengo emanaldian Zamudio-Zu-
gasti leinuaren gorabeherekin jarraituko
dugu eta, beste batzuen artean, Hordo-
ñoren bigarren eta hirugarren ezkontzak
edukiko ditugu hizpide.



Martiartu dorretxea eta Zamudiokoa oso eraikin antzekoak dira, beraz, garai berean altxatu zirela pentsa daiteke. Dorretxeak defentsarako eraiki ziren eta ugazabak nahiko ondo zaintzen zituzten han bizi ziren bitartean. Hala ere, ez ziren erosoak eta leinuen arteko gatazka baretzen joan zen heinean, dorreek errentan eman ziren. Haien funtzioa ez ezik itxura ere galdu ohi zuten, maizterren esku hainbat urteetan egotearen ondorioz.



Uitzaga Ibaia, Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEFO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknologia

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Teknikaria
- Produktzio Programatzeko Teknikaria
- Automatizazioa eta Informatikako Sistemetakoa Teknikaria
- Salmanten eta Merkataritza esparruen Kudeaketako Teknikaria
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Teknikaria

t: Itxaso Marina

Josuk ondo ezagutzen dau boxeo mundua, izan be, 80ko hamarkadan boxeolaria izan zan. Zamudioztarrak ia 200 burrukalditan hartu eban parte eta Euskadiko txapelduna izan zan hainbat aldiz (Eusko-nafar txapelketak, garai hatan). Espainiako txapelketan be ibili zan. Beraz, ez da arraroa herriko gazteek berarengana jo izana, boxeo gimnasio bat martxan jarteko. "Ideia gazteengandik eurengandik sortu zan, lonjetan-eta egoteaz aspertuta egozalako. Udalagaz jarri nintzan harremanetan eta leku bat itxi euskuen eskola zaharretan".

Taldean 40 gazte inguru batu dira, 14 urtetik 33 urtera bitartekoak. Gehienak mutilak diran arren, neska bi be badagoz. "Gero eta emakume gehiago animaten dira kirol honetan ahalegintzera". Boxeolariak batez be Zamudiokoak, Lezamakoak, Larrabetzukoak eta Deriokoak dira, baina Bilboko jentea be hurbiltzen da taldearen instalazioetaraino. "Boxeo gimnasioetan gabilzanok han eta hemen zer

*Asmoa ez da lehian
ibilteko boxeolariak
trebatzea, gazteek
zaletasun bat euki
eta kirola egitea baino*

Boxeoaren artea

ALDEKOA ZAMUDIOKO BOXEO TALDEA

Aldekoka Zamudioko Boxeo Taldeak urtebete egingo dau datorren maiatzean. Josu Naranjo hango monitoreak egitasmoaren barri emon deusku, eta martxoan Bizkaiko Txapelketearen finalaurrekoak antolatuko dituela aurreratu deusku.

dagoan enteretan gara azkenean, eta gurea ondo baino hobeto dago: arrazoizko prezioak ditu, zamudioztarrek 15 euro eta kanpokoek 20 euro ordaintzen dabelako; esperientzia dauan monitorea doan da; eta instalazioak nahiko ondo dagoz". Entrenamentuak egunero egiten ditue, 20:00etatik 22:00ak arte. Horrezaz ganera, martitzenetan eta eguenetan 14 urtetik beherako gaztetxoei zuzendutako entrenamentua eskaintzen dabe, 19:00etatik

20:00ak arte. Gaztetxoei zortzi euro ordaintzen dabe hilabeteko. Hareen artean neskato bi dagoz.

Gimnasio duina atondu dabe. Boxeolariak eta bazkideek ordaintzen dituen kuotei esker hornidu dabe. Gaur egun 70 bazkide ditue, urtean 12 euroko kuota ordaintzen dabenak. "Gimnasioan dagoan guztia geuk ordaindu dogu. Garestia da eta urtean 5.000-6.000 euroko gastua euki daikegu. Eskunarruek 40 eurotik 60 eurora bitarteko prezioa dabe eta hiru hilabetero 10-12 pare baztertu behar doguz osasun arrazoiengaitik. Ekipajeak be garestiak dira, 300 euro ingurukoak... Datorren urteari begira, Udalak dirulaguntzea emongo deuskula uste dogu eta herrian boxeo-emonaldiak antolatzeke erabilteko asmoa dogu berau".

Josuk, batez be, boxeoaren artea irakasten deutse boxeolari gazteei, eta garrantzia teknikeari emoten badeutse be,

*Bizkaiko Txapelketearen
finalaurrekoak
martxoaren 2an
izango dira Zamudioko
kiroldegian*



kirolaren arlo guztiak lantzen ditue. Besteak beste, pisuak altzaten ditue eta ariketa kardiobaskularrak egiten ditue. "Gimnasioa kirola egiteko gogoa dauan edonori dago zabalik. Gure asmoa ez da lehian ibilteko boxeolariak trebatzea; gu zaleak gara eta gazteek kirola egitea dogu helburu, zaletasun bat euki daiela eta sasoi onean egon daitezala. Halanda be, profesional mailan aritu gura dauan baten bat balego, laguntzea emon eta beste leku batera bideratuko geunke".

Josuren esanetan, taldean badagoz gailentzen diran gazteak. Baina, aldi berean, boxeo oso kirol gogorra dala gogoratu deusku. "Honek ez dau zerikusirik, adibidez, futbolagaz. Partida baten 10 gol sartzen badeutsuez, ez da ezer gertatzen; boxeoan, barriz, ringera igoten zaranean, jo egiten zaitue. Eta gimnasioan dana da oso polita, dana egiten da ondo... baina ideak blokeatu egiten dira ringean. Horregaitik oso ondo kontzientziauta igon behar da bertara". Boxeo ondo ordainduta dagoan kirola be ez dala aitatu deusku Josuk, oso-oso ona ez bazara, jakina.

Aurreretiak ezabatuz

Taldeak dauan beste helburu bat boxeoaren inguruan egon daitezkeen aurreretiak ezabatzea da. Halan, maitezean boxeo-emonaldia antolatu eben lehenengo aldiz eta han boxeolari ospetsuek hartu eben parte. Hareen artean Andoni Amaña Europako txapelduna izan zana egon zan. Herriko jaietan be



beste saio bat egin eben. "Esan beharra dago ha jai-batzordeak emondako laguntzeari esker antolatu genduala. Osterantzean, ezinezkoa izango zatekean". Aurreratu deuskuen moduan, Boxeoaren Bizkaiko Txapelketearen finalurrekoak martxoaren 2an izango dira Zamudioko kiroldegian. "Pixkanaka-pixkanaka gauzak egiten gabilz eta ekitaldi hau Euskobox, Bizkaiko Federazio eta Udalaren laguntzeagaz antolatuko dogu. Uste dogu 10-12 burrukaldi egongo dirala eta KO1 modalitatea be egongo dala. Modalitate horretan hankak be erabiltzen dira. Nesken arteko burrukaldiak be izango dirala uste dogu, baina oraindino ez dogu informazio guztia eta zehetasunen zain gagoz". Emonaldia arratsaldeko 7etan hasiko da eta sarrerea doan izango da bazki

deentzat. Gainontzekoek bost euro ordaindu beharko dabe.

Arautegi barria onartu da mundu mailan eta hemendik aurrera burrukaldiak kasko barik egingo dirala ezarri da han. Ondorioz, martxoan Zamudion ikusteko erea egongo dan emonaldian ez da kaskorik erabiliko, ziur asko. "Espainiako Federazioak gai hori konfirmatu behar deusku. Egia esan, niri bardin deust boxeolariak kaskoa erabiltzen daben ala ez, baina badakit ikusleentzat erakargarriagoa izan daitekeala erabiltzen ez badabe. Eta parte-hartzaileek be errespetu handiagoagaz igongo dira ringera... Barri ona da eskunarru bigunak, 10 ontzakoak, erabiltzen jarraituko dabela. Nire garaian, gogorrak ziran, zortzi ontzakoak. Eskerrak dana aldatzen dala!".

Aurrean dagoanari begirunea erakutsi

Eneko Lasarte Iarrabetzuarra eta Aitor Rodriguez Iezamarra Zamudioko boxeo taldearen kideak dira. Baita ring batera igon diran bakarrak be. Biek gimnasioen arteko txapelketan hartu dabe parte. Txapelketa horreetan ikas-teari emoten jako garrantzia, eta ez lehiaketa hutsari. Enekok 22 urte ditu eta boxeo munduan orain dala urte batzuk hasi zan, Derion. "Baina itxi behar izan neban, belarrian kolpea hartu nebalako". Zamudion gimnasio bat irekiko zala jakin eban eta animau

zan han saiatzera. "Eta bat-batean ringean ikusi neban neure burua. Zer sentiduten da han? Urduritasuna, gimnasioan ondo egin arren, ringean maila erakutsi behar dozulako. Ea kolpeek minik egiten daben? Ez, mina astebete pasaten danean hasten zara nabaritzen". Aitatu deusku gurasoei ez jakela gustaten bera boxeoan ibiltea, baina kirol hau bizitzarako oso baliagarria dala esan deusku, "nasaia egoiteko eta ikasketetan arreteta jarteko".

Aitorrek 24 urte ditu eta telekomunikazioak ikasten dabil. Boxeoan 16 urte

zituala hasi zan, Bilbon, eta kirol hau praktikatu barik hainbat urte emon otean, barriro saiatzeko erabagia hartu dau. "Zaletasuntzat dot. Hona barrena nasaitzera eta kirola egitera nator. Boxeoak aurrean dozunari begirunea erakusten irakasten deusku. Zure helburua ez da ha zanpatzea, gauzak ondo egitea baino". Gimnasioen arteko txapelketan urduri ibili dala esan deusku, "baina hala-hola egin dozula ikusten dozunean, pozik urten dozu ringetik".

Argazki ikastaroak



a: Oihane Goienetxe

Urtarrilean ekitaldia antolatu dugu Tximintx Derioko euskara elkartearen kideekin batera. Argazkigintzaren gaineko ikastaroa egin genuen eta han oinarritzko ezagutza eman ziguten,

argazki politak eta dotoreak ateratzeko. Ikastaro azkar-azkarra izan zen eta ostean Bilbora abiatu ginen, argazki-kamara eskuan genuela. Hiriburuak bilakaera itzela eduki du azken urteotan, eta gure objektiboen bitartez jaso genuen.

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun

Hamaika argazki atera ostean, zerbait gehiago ikastea ondo legokeela bururatu zaigu eta ikastaro bi antolatu dugu: bata, urtarilaren 31rako; eta bestea, otsailaren 14rako. Lehenengoan, argazkiak zelan kudeatu ikasiko dugu eta horretarako argazkigintza programak erabiliko ditugu. Bigarrenetan, argazkiak Interneten dauden gizarte-sare eta webgune nagusietara zelan igo irakatsiko digute. Aipatu beharra dago ikastaroak Tximintx elkartearen kideek eta Berbalagun egitasmoan dabilzan lagunek emango dituztela. Ikastaroak Derioko Kultur Birikan izango dira.

Afaria dugu!

Berbalagunen arteko afaria otsailaren 8an egingo dugu aurren, Lezamako txokoa. Mahaian gaueko 9etan eseriko gara. Txokoa menu goxo honetaz gozatzeko aukera edukiko dugu: entsalada, odolosteak, bakailaoa piperrekin, postrea eta edaria. Afariak 15 euro balio izango du lagunek. Gainera, aipatu behar dugu ez dela afari arrunta izango, ez. Kantu afaria izango da eta musika Taberna Ibiltariak ipiniko du. Goxo-goxo eta musikatua!



ESKAINTZAK

ADARVE KAFETEGIA
PINTXO-SORTA ZABALA

Sollube, 2 DERIO
Tel: 94 608 95 31

Leizaola plaza, 7 - beheko
ZAMUDIO
94 855 93 89

ama
taberna

Krema
ezberdin bat,
egunero

TURREGOITI
JATETXEA

Lauroeta elorbidea, 27
48180 Leiza-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitik.com

TXARRIBODAK
ASTEBURUETAN

Estetika - Ilarapaindegia

GALAIISA

Sabino Arana 1-3. SONDIKA
944530485 - 944711051

Urte berria
Look berria

Goiri ' 78
Zerbitzu ofiziala

Ford

Eskaintzak
autoak aztertzeko

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

94 455 81 44
Anguleri 2, beheko LARRABETZU

Peluteria
Estetika

GOIZALDE

IRATXO
gozotegia

San Valentín
goxo-goxoa

tarta pertsonalizatuak
trufak
helak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 5. lonja - Sondika, 48150 - 94 645 89 19

OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5 - ZAMUDIO - 94 452 28 18

zure BEGIAK zaintzen ditugu

yedra
floristas

Loreak
oparirik onena

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Zure umea
TXORIERRIN
bertan jantzi

LEJARRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 102 - LEZAMA - 94 455 65 46

Menu bereziak
asteburuetan

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

fresko-freskoa!

Dada Company umeentzako liburu elektronikoak kaleratzen dituan euskal argitaletxe bat da. Orain dala gutxi, *Basajendea* ipuina emon eban argitara. Euskerazko ipuin interaktibo bat da eta euskal mitologiako pertsonaien historia batu dabe bertan. Ikuika konpainiak iPad tabletetarako, iPhone eskuko telefonoetarako eta Android sistemarako garatu dau ipuina. Gidoia eta irudiak Pernan Goñik egin ditu.

Ipuinak 14 pantaila ditu eta umeek pantaila horreek ikutu behar ditue, Basajaun, Mari eta Ortzi lako pertsonaia mitologikoen gaineko hainbat kontu ezagutzeko. Eta, aldi berean, euskera ikasiko dabe era dibertigarri baten. Izan be, Dada argitaletxeak azaldu dauen moduan, Basajendea kalidadezko entretenimendu bat da, umeak heztea eta dibertidutea helburu dauena. Era horretan, umeek animazioak, eszena interaktiboak eta soinu-efektu dibertigarriak topauko ditue bertan. Ipuin interaktiboa on-line eskuratu leiteke Apple eta Google dendetan.

Pertsonaia mitologikoak interaktiboak dira



Itzulpen akademikoak kontsultatzeko aplikazioa

UPV/EHUko Euskera Zerbitzuak aplikazio barri bat aurkeztu dau: EHUSkaratuak. Corpus eleaniztun bat da, erabiltzaileari aukerea emoten deitona Euskera Zerbitzuak azken urteotan itzultako testuliburuak Internet bidez kontsultatzeko. Itzulpen akademiko horreek metodologia jakin bat erabiliz egin dira ingelesetik, frantsesetik eta gaztelaniatik, eta <http://ehuskaratuak.ehu.es> helbidean kontsultatu leitekez. Era berean, euskerazko terminoak aitatutako hizkuntzetan zelan esaten diran be kontsultatu leiteke webgunean. Corpora 2010ean eta 2011n

argitaratutako 29 liburuk osatzen dabe. Etorikizunean, 2012an zein 2010a baino lehen argitaratutakoak be sartuko dira aplikazioan.



Hiztegi terminologiko barriak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hamaika hiztegi terminologiko barri argitaratu ditu. Hiztegiok Terminologia Batzordeak onartu zituan 2012. urtean; honeek dira: *Automobilen mantentzea, Makina-erreminta, Eskubaloia, Gorputz hezkuntza, Laneko segurtasuna, Negoziazio kolektiboa, Hauteskundeak, Administrazioarekiko auziak, Burdindegia, Metalurgia eta Papergintza*. Hiztegi guztiak EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoan dagoz integratuta: www.euskara.euskadi.net/euskalterm.





Uagadugu: Uagadogu / Uagadegu / Uagadügü

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

PERU -Amerika- eta PETRA -Jordania- ideologia desberdineko neba-arrebok JAMAICA bider entzun duzue "eta TIRO

-Libano- eta TIRO" jardun gabe, hobe dela harreman SUABIA -Alemania-, batez ere, 2013 abiatu berrian. Edo baino eta erabil-tzea mesedegarriago zaizuela, LEWIS eta HARRIS -Erresuma Batua- uharte bakarrak

bezala. Batak EUSKADI, besteak EUSKAL HERRIA? Norbaitek beharko du argitu, erabaki BETLEEM dela euskaraz, ez BELEN; ALICANTE ALACANT den era berean.

Ez ote digute arrotzek adarra joko? BURKINA FASOk biztanleek kontatzen dute UAGADUGU hiriburuari gipuzkera-koek UAGADEGU deitzen diotela eta biz-kaierakoek UAGADOGU eta Zuberoako-ek UAGADÜGÜ, baina UAGADUGU UAGADUGU dela.

Bereziak gara euskaldunok, baina ez hain. UR Iraken da; URARTU Armenian; URI Suitzan; NAFARRURI, oster, ERRIOXAn. Bidaia dezagun bagaratik geugarara.

NOLA -Italia- zabiltzate MISSISSIPPI-ren idazkeraz eztabaidan? NORA -Italia- joateko? Bizitzak legez ibai luze hark kontsonanteak baino gehiago izango ditu bihurtuneak. Adostasunerako M bat gehitu behar bazaio, ipini eta kito. Ados bagara, izan bedi MMISSISSIPPI. Zer axola dio?

Bestalde, zertara garamatza zarama-ren marmarrak, muturreko jarrerak? Dio batak: PO onartu behar dela; erantzuten du besteak: KONSTANTINOPOLIS onetsi behar dela. Zergatik ez berba bietan agertzen den PO jaso eta POLIS biontzat hartu?

Azken baten, "TIRO eta TIRO" jardun barik, Europa honetako krisian ere, agian, TXEKIaren bidea interesgarrien. Zergatik ez elkar hartu eta JAN MAYEN -Norvegia.

elekma
URRATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKAK
lehenengo markak • Preziarrik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Tasariari onerabada, 25-3 N • 48180 DERIO
T: 944 539 232
www.elekma.es

urdaitegia delicatessen
amalur
Uribe, 14 - 48160 DERIO
94 612 19 55
www.amalurdio.com
info@amalurdio.com

**SARRIKOLA
OGITEGIA**
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Uribe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea;
umeak

Etxeko sukaldaritza

Gaztai-soufflea

*Maite Lekerika, sukaldaria***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- 500 ml bexamel:
- 400 ml esne,
- 100 g gurin
- koilarakada bi urun
- gatz apur bat
- 8 gorringo
- 8 zuringo
- 250 g Idiazabal gaztai (arraspaua)
- Gatza
- Gurina
- Piperbeltz zuria (gustukoa bada)

Prestateko area:

Bexamelari gorringoak gehituko deutsaguz, eta, kontu handiz, gaztai arraspaua. Zuringoak edur-punturaino irabiauko doguz eta oreagaz nahastuko dogu. Gatza eta piperbeltz zuria botako doguz eta dana nahastuko dogu. Molde bat gurinagaz igurtziko dogu eta ore a hara botako dogu, harik eta moldearen herena bete arte. Labara sartuko dogu 200 gradutan eta han 20 minutu inguru eukiko dogu. Bero serbiduten bada, gozoago egongo da.



Brokoli, azenarioa eta arto-entsaladea

Osagarriak:

- Brokoli bat
- Azenario bi
- Katilukada bi arto
- Orioa
- Ozpina
- Gatza

Prestateko area:

Urari gatza bota eta irakiten jarriko dogu. Brokolia adartxutan ebagiko dogu, eta zanoria dadotan. Ura irakiten hasten danean, brokolia eta azenarioa botako doguz eta egosten bost minututan eukiko doguz. Barazkiak uretatik atera eta ur hotzetan freskatuko doguz. Artoa, brokolia eta azenarioa nahastuko doguz. Entsaladeari gatza, ozpina eta orioa botako deutsaguz.



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

KAFETEGIA

IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel: 944 54 29 56

Carnicería
Charcutería
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL: 94 454 10 75

DERIO

Eskeerrik asko
etortzeagaitik

eleizalde
Kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel: 94 454 52 88

Inmobiliaria
ETORKI

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Mobila: 607 32 35 53

48160 DERIO

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERIAK

Ugaldoguren 1 ind, 10-8 mabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 82 93 - Fax: 94 454 50 63



Hileko galdera

Nondik dator OK esamoldea?

OK esamolde ingelesak adierazten du dena ondo dagoela, eta geure artean ere askotan erabiltzen dugu. Esaera Estatu Batuetan hasi zen erabiltzen, Sezesio-gerran (1861-1865) hain zuzen ere. Batailen ostean, soldaduak kuartelera heltzen zirenean, arbel handi batean idazten zen zenbat lagun hil ziren batailaremunan. Hilik ez bazen, "0 Killed" idazten zen, hau da, hildakorik ez. Geroago esamoldea zabaldu egin zen eta OK laburtu zen. Hura "konforme" edo "ados" esan nahi dugunean erabiltzen dugu.

Sudokua

			6	8				
	2	7	4				1	
9				7	1			
2					8			
		8						1
4	3	6				9		2
		4	2	6				
	9							6
8					3			

8	6	2	7	9	3	1	4	5
3	9	5	8	1	4	7	2	6
1	7	4	2	6	5	8	9	3
4	3	6	1	5	7	9	8	2
7	5	8	9	2	6	4	3	1
2	1	9	3	4	8	6	5	7
9	8	3	5	7	1	2	6	4
6	2	7	4	3	9	5	1	8
5	4	1	6	8	2	3	7	9

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoien konsumatuenak
Mantentze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbretako garbiketa
Ikastetxeak
Zahar biltegiak

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Orduetegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Erakusketak

Derio

- > "Zuberoako maskarada", Jon Mikel Intsaustiren eskutik. Otsailaren 4tik 27ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > "Mont Blanc eta Alpe frantsesak", Unai Barcenillaren eskutik. Otsailaren 20an, 19:30ean, Kultur Birikan. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Bosgarren edukiontzia. Otsailaren 28an, 19:00etan, Zamudiotarren.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Jon Arretxeren 19 kamera liburua. Otsailaren 19an, 20:00etan, Anguleri kultur etxean. Arrekikili euskara elkarteak antolatua.
- > Konpostajea. Otsailaren 27an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.



Ikastaroak

Txorierri

- > Sexualitate tailerra. Mankomunitateak antolatua, 13 urtetik gorakoei zuzenduta.
Derio: Otsailaren 1ean, 18:00etan, Gaztelekuan.
Lezama: Martxoaren 1ean, 18:00etan, Gaztelekuan.
Zamudio: Otsailaren 22an, 18:00etan, Gaztestaziñon.

Larrabetzu

- > e-Administrazio ikastaroa. Izena ematea: otsailaren 15era arte, Anguleri kultur etxean.

Irteerak

Sondika

- > La Celadilla (Zalla), otsailaren 10ean. Izena emateko epea: otsailaren 7ra arte, liburutegian. Gurasoen elkarteak eta Udalak antolatua.

Derio

- > Elurretara: Lunada (Burgos). Otsailaren 24an, Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Sagardotegi batera. Otsailaren 24an, Arroeta taldeak antolatua.

Lezama

- > Lunada (Burgos). Otsailaren 16an, Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Bizkargi. Otsailaren 23an, 08:30ean, plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Burgos. Otsailaren 24an, Zorribike taldeak antolatua.

Musika

Loiu

- > Santa Ageda. Otsailaren 4an, 11:15ean, Elotxerri plazan; eta 12:30ean, Zabaloe-tereko elizan.

Derio

- > Behotsik taldearen kontzertua. Otsailaren 28an, 19:00etan, Kultur Birikan. Gure señeak elkarteak antolatua, Gai-xotasun arraroen Nazioarteko Eguna-haririk.

Zamudio

- > Santa Ageda. Otsailaren 4an, herrian zehar.

Lezama

- > Santa Ageda. Otsailaren 4an, 19:30ean, Ekidazu abesbatzaren eskutik.

Bestelakoak

Derio

- > Sasimartxo. Otsailaren 3an, 17:00etan, Santimamiko landetan. Tximintx euskara elkarteak antolatua.
- > Tokiko agenda 21. Otsailaren 20an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > Sasimartxo. Otsailaren 3an. Izena emateko epea: otsailaren 1era arte.
- > Batzarra, Pazko jaien haririk. Otsailaren 13an, 20:00etan, eskola zaharrean.

Zamudio

- > Irakurketa kluba. Otsailaren 22an, Anguleri kultur etxean.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Bonueak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clinica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoniemi atorbidea, 9 - Loria | Artea enakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 667 79 54 48
info@dentizaindus.com | www.dentizaindus.com

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaitz Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Baxo
DERIO

t i k a k

EGUNEKO MENUA

lehena platera
bigarrena platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

harategia - urdaitegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com | info@nireautoocasion.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO ORELETA ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukalderitza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 18

Mungai de etorbidea, 25
48160 DERIO

Eistazu!

TXORIERRIKO BERBALAGUNAK

txorierri.berbalaguna@gmail.com Informazio gehiago: 635.75.35.95

Euskaldun zaharrak

Euskaldun berriak

Euskaldunak

IZENA EMATEKO:

Txorierriko Mankomunitatea: 94.454.0350

Udal euskaltegia: 94.454.0062

Txepetxa euskaltegia: 94.454.3967

Afarian Eskaladan Museoan Perretxikotan Sukaldatzen Padelean Talo egiten Ikasten



LAGUNTZAILEAK

BABESLEAK

ANTOLATZAILEA





ASCENSORES ANBOTO

www.ascensoresanboto.com



24
ordu

94 674 18 98



Bulegoa: 94 653 19 19
Sakelakoa: 674 494 883
info@ascensoresanboto.com



igogailuak instalatzeko konponbide integralak

SANGRONIZ BIDEA, 6
4V MODULUA - 48150 SONDIKA

LEIZAOLA LEHENDAKARIA PLAZA
1. LONJA - 48170 ZAMUDIO

BELAKO, 2 ELKARTEGIA - LUISENE 2
A2 BULEGOA - 48100 MUNGIA



URTE BATEKO
MANTENTZE-LANAK,
DOAN